

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1990eko Apirilak 27, 61. (B) zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean

WILLIAM FOOTE WHYTE:
"Kooperatibek malgutasun
handia dute"



ARRASATE MŪSİKAL: SOINU TRISTEA

Joseba

METAL-ARozTEGIA P.V.C. eta ALUMINIOAN.
Especialitatea: zubi termikoren haustura



Urasandi Auzoa z/g. Tfnoa: 74 36 34 ELGOIBAR

Adi ATBren

ikusle!

22.

k a n a l e r a
j o a n g a r a

Bai, zuk hobeto ikus dezazun egin dugu aldaketa hau.

23.kanalean emititzen egon gara orain arte eta, eginahalak egin arren, ezin izan dugu sartzen zitzaigun interferentzia ezabatu.

Horregatik, egin ez baduzu, aldaketa txikitxo eragin beharko diozu zeure aparailuari.

23.kanaletik 22.era pasatu eta kito.

Aurrerantzean askoz ere garbiago ikusiko duzu Arrasate Telebista. Zutaz arduratzen garelako.



ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)

Azoka kalea 1,

20.500 ARRASATE. Tfnoa: 77 05 65

Laguntzailea: Arrasateko Udala

Zuzendaria: Joxe Aranzabal

Erredakzioa: Jon Andueza

Bego Zubia

Publizitatea eta harpidetak:

Josune Biteri

Tfnoa: 77 08 15

Maketazioa: Goio Arana

Erredakzio-kontseilua: Jose Felix Diaz de

Tuesta, Harry Zاراia, Iñaki Mendiguren

Kolaboratzaileak: Josemari Velez de

Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele

Zuazubiskar, Patxi Montero,

Juan Martin Elexpuru, Eukeni

Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo

Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus

Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo

Elortza, Blanka Jauregi, Klarion Taldea,

Joseba Vallés, Karmelo Uribarren,

Iñaki Aranburu, Hankamotz,

Maite Toledo, Atalaitakoan.

Inprimategia: Gertu Koop. E.

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Copyright: ARRASATE PRESS

Tirada: 6.500 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eriztzen erantzunkizunik.



Liberté, Egalité, Fraternité (bai zera!)

Urtetan zehar, Frantziak nolabaiteko lilura sortu zuen nigan, sentimendu hura pixkanaka pixkanaka ezabatuz joan bada ere. Niri bezalaxe, askori ere berbera gertatu zitzaiola esatera ausartuko nintzateke; oinarri faltsuan eraikitako begiruneak ezer gutxi iraun zuen, planteamendu zabalagotatik eginiko azterketa kritikoaren aurrean.

Aipaturiko oinarri faltsu hori, dudarik gabe, noizbehinka Baiona edota Donibane Lohitzunera hurbildu eta bertan "esku artean" erabili ahal izandako ikurrin eta abertzale izatearen gainerako sinbologian sostengatzen genuen. Egiazko aurpegia, geroago frogatu dugunez, bestelakoa zen. Frantziar Estatuak bere mugen barruan ezarritako sistemak ez die, eremu urriko biztanlegoei euren garapenerako aparteko aukerarik eman. Jarrera hori euskaldunok gure larruan igerri ahal izan dugu.

Txobinismoaren erresuman —azken berrehun urtetan errepublikaren zinupean bizi diren arren— eztabaida ikaragarria sortu da, inmigratioak ekarritako arazoak direla eta. Ez da txantxetakoia, ez, Mitterranden mepkoek une hauetan daukaten eztabaidagaia. Indar politiko guztiek euren postulatuak zorrotzu egin dituzte eta Le Pen-en eskuin setatitiek ustekabean harrapa zaitzakeen alderdi komunista-raino —den denek— diskurtsu epel bezain zalantzarriak gertu dituzte.

Beharbada, guztietatik gardenena eskuindarrarena dugu, era borobil batez ezetzik azpimarragarriena eman baitio etorkinen jario amaitezinari.

Saltsa-maltsa horretan, inmigratioa ez ezik, arrazakeriaren maila ere epaitzen ari da, ezpairik gabe. Arrazakeria eta xenofobia frantziar etxetako igongailuak baino arinago ei dabilta. Eta sentimendu horien azpian, inmigratuen inguruan eman daitezkeen gorabeherak arautu nahian ari dira alderdi politikoak, nondik jotzen batere garbi ez dutelarik. Frantziar nazionalitatea; asiloaren eskubidea; azpiko lana (lan beltza); integrazioa; etorkinen erlijioa eta kulturako leku aproposak; bozketarako eskubidea... dira mahai gainera bapatean azaldu omen zaizkien garauak.

Demagogia merketan erori gabe, portugaldar, marrokiar, algeriar... gehiegi behar izan ditu frantziar Estatuak, azken hogeitamar urteetako garapen ekonomikoa loratu ahal izateko. Orain, berriz, lantuak. Langabezia horzka hasteaz batera "ezagutu" bide dute frantziarrek ghettoen errealitatea. Beranduegi, antza, betidanik azanpatuta eta erabilia sentitu diren atzerritar horientzat.

Badirudi, 1789az geroztik hain entzutetsu egin den esloganak —askatasuna, berdintasuna, anaitasuna— berrirakurketa sakona behar duela.

Josemari Velez de Mendizabal

**UGARAN
jatetxea**

Garagaritza auzoa - 1/797858 Arrasate

**enpresa
bazkariak
eta famili bilerak**



gili gili

Iturriotz 9, Tfnoa: 79 94 57

HIRE

Liburu eta oparidenda

Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84

KOPIOTXOA

Fotokopiak
Planu-Erreproduzioak
Enkuadernazioak

Zarugalde 28, Tfnoa: 79 17 82
ARRASATE

PAPER PINTATUAK - PINTURAK

A. ZANGITU

Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE
Tfnoa: 76 19 54 BERGARA

**MUSAKOLA
OSTATUA**

Taberna
Jatetxea
Bazkariak
Bodak
Banketeak
Gelak

Gipuzkoako Etorbidea z/g
Tfnoa: 79 20 50

Euskara-Fagor Elektronikan

Orain denbora gutxi, Arrasate euskararen aldeko apostuaren hitzarmena sinatu zuten Arrasateko elkarte batzuk (28), euren arteko harremanak euskaraz burutzeko.

Zerrenda horretan ez dut ikusi Elektronika izenik. Nire buruan arrazoi bila nebilela, Fagor-eko batzar nagusiak eman dit erantzuna.

Batzar guztiko atal guztiak espafiol hizkuntzan erabili dira. Mahaiko azterlari guztien artean. Hor erantzuna.

Urte askotan aritu naiz euskarak kooperatiban euki duen zapalkuntzak burukatzen, eta oraingoa hemendik salatzen dut. Bateonbatak pentsatuko du, zergatik batzarrean ez nuen salatu, zapalkuntza hau. "Aspertuta" nagoelako, zuzeneko salaketak euki duen ohiartzunak, ez duelako bazkide artean erantzunik izan.

Bi ordutik gora iraun zuen batzarrrak, eta atal guztiak gaztelaniaz azaldu zituzten, atal erdi bat izan ezik (10 minutu).

Hori bai, "adarra" jotzeko, onarpenak (akordioak), euskaraz eman ziren.

Jubilatu bat

Gelmaren zikinkeria

Denek dakite aspaldidanik, *Gelma* lantegiak etengabeko ke isurketak direla medio, eragiten duen kutsadura.

Azken hilabeteotan fundizioan beste kate berri bat martxan jarri dutela eta, kutsadura areagotu egin dute. Salaketa batzu izan dira, Nafarroa Etorbideko auzotar batek, urrian edo, egindakoa Udalak kontuan hartu zuen arte.

Horren ondorioz, 89ko urriaren 30ean, Gobernu-Batzordeak, *Gelma* lantegiari eskakizuna luzatu zion, hau da, hiru hilabeteko epea ematen dio IGOKA eta P(Iharduera g)ggaika, osasungaitz, kaltegarri eta arrisku-

gariak) direlako espedientea aurkez dezan.


Gelmak, lau hilabeteko epean, espediente hori aurkeztuko duela, erantzuten du. Martxoaren hasieran, auzokideek beste salaketa berri bat burutzen dute, lantegiaren erantzun eza dela eta. Azkenik, 1990ko martxoaren 26an, Gobernu-Batzordeak hilabeteko epea ematen dio, I.G.O.K.A. eta P. delako espediente hori aurkez diezaion.

Horrekin batera, 15 egunetako epean ke isurketei eta hauen ezaugarriei buruzko, txosten bat bidali diezaion. Eskatutuakoa betetzen ez badu zigor-espedientea zabalduko zaio.

Joan den ostiralean, Ertzantzak delaratzera deitu zituen lau auzotar, Gelmak salaketa ipini bait zien zaborra lantegira botatzeagatik. *Gelma* lantegiak, bere jarrera kutsatzailerari eusten dion bitartean, gu bat gatoz auzotar hauek erakutsitako jarrerarekin eta animatzen ditugu bide horretan jarrai dezaten, gure elkartasuna aldarrikatuz.

Egoera larri honen aurrean, Anbulategiaren eta Deba Garaiko Ospitalearen hurbiltasuna kontutan hartuta, baita auzokideen egoera ere, beharrezkoa litzateke Udalak neurri gogorrek hartzea, Gelmak jarraituko balu lege-hauste ekologiko eta osasun publikoaren aurkako ekintza honekin.

Arrasateko Eguzki




Irakurtzeko ohiturarik baduzu? Zein izan da irakurri duzun azken liburua?



Jose Alberto Gomez
(langilea)
Bai. "El origen de las especies".



Sofía Martín
(etxekoandrea)
Ez, ez dut irakurtzeko ohiturarik.





Simon Menika
(langilea)
Bai, normalean aldizkariak eta egunkaria. Libururik ez dut irakurtzen.



Rakel Belategi
(ikaslea)
Bai, egunkaria, aldizkariak, liburuak, denetik apur bat. Irakurri dudana azken liburua "Rebeldes" izan da.

LENIZ

AUTO ESKOLA



LASTER: AUTOBUSA ETA KAMIOIA

ARRASATE - ESKORATZA

Memesa

79 42 22

URRIN

Urbarri Etorbidea 22, Tfnoa: 79 95 24

**KAZOLATAN
ESPEZIALISTAK**

Jesus Giraldo

LISERI-APARATUA

X Izpiak, endoskopia

(Lagun Aro, Gipuzkoako Foru Aldundia, Prebisa, Adeslas
(Muface) eta partikularrak
Kontsultak arratsaldeetan

Loramendi 6, 2. B (Eguzki dorrea) Tfnoa: 79 04 14 Arrasate




**BELUN
taberna**

Lagunarte bikaina

Garagarza auzoa z/g Tfnoa: 79 61 14

BEHARREZKO TELEFONOAK



ERITETXEA

| | |
|---|----------|
| Arrasateko Eskualde-Ospitalea | 79 53 00 |
| Igualatorria | 79 05 00 |
| Santa Agedako Ospitalea (gizonak) | 79 39 00 |
| (emakumeak) | 79 44 11 |
| Buru osasunerako zentrua | 79 90 11 |

GURUTZE GORRIA

| | |
|---------------|----------|
| Bergara | 76 55 76 |
|---------------|----------|

DYA

| | |
|----------------|----------|
| Antzuola | 76 62 91 |
|----------------|----------|

ANBULATORIOAK

| | |
|--------------------|----------------|
| Arrasate | 79 13 57 |
| | 79 97 22 |
| Oñati | 78 08 52 |
| Eskoriatza | 79 88 96 |
| Aretxabaleta | 79 74 58 |
| Aramaio | (945) 45 51 16 |

ANBULANTZIAK

| | |
|-------------------------------|----------|
| Gipuzkoako anbulantziak | 45 87 44 |
|-------------------------------|----------|

UDALTZAINGOA

| | |
|--------------------|----------|
| Oñati | 78 04 11 |
| Bergara | 76 14 69 |
| Arrasate | 79 14 39 |
| Aretxabaleta | 79 10 52 |
| Eskoriatza | 79 03 22 |

ERTZANTZA

| | |
|----------------|----------|
| Arrasate | 79 71 99 |
|----------------|----------|

SUHILTZAILEAK

| | |
|--------------------------------------|----------|
| Udal taldea | 79 09 00 |
| Udal taldeko suhiltzaile burua | 79 20 72 |
| Zubillagako Eskualde-Parkea | 78 28 00 |

MATXURAK

| | |
|----------------------------------|--------------|
| Urak (udal zerbitzua) | 79 09 00 |
| Elektrizitatea (Iberduero) | 79 05 81 |
| Gasa | 900 40 05 23 |
| | 79 78 44 |
| | 79 76 78 |

GARRAIOAK

| | |
|---------------|----------|
| Taxiak | 79 12 22 |
| P.E.S.A. | 79 14 19 |

HIRUGARREN ADINARENTZAKO ZENTRUAK

| | |
|---------------------------------|----------|
| Iturbide Egoitza | 79 72 11 |
| Abaroa jubilatuen egoitza | 79 81 57 |

KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA

| | |
|--|----------|
| Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte | 79 87 77 |
|--|----------|

27 OSTIRALA

- Zinea: Alai: "El club de los poetas muertos" 7 eta 10etan
Novedades: "Aqui huele a muerto". 10,30etan.
- San Andres auzoko jaiak:
- Dantzaldia: Almen taldearekin, gaueko 10.30etan.
- Goardiako farmazia:
Corcuera. Musakola

28 LARUNBATA

- Zinea: Alai: "El club de los poetas muertos" 5, 7.30 eta 10.30etan.
Novedades: "Amburger". 5, 7, 30 eta 10.30etan.
- Deba Garaiko Eskola Arteko III Abesbatza Topaketak. Amaia Antzokian, arratsaldeko 4,30etan.
Doan.
- San Andres auzoko jaiak:
- Dantzaldia: Drakkar taldearekin, gaueko 10.30etan.
- Bigantxak, gaueko 12etan.
- Goardiako farmazia:
Irizar. Erguin.

29 IGANDEA

- Zinea: Alai: "El club de los poetas muertos" 5, 7.30 eta 10.30etan.
Novedades: "Aqui huele a muerto". 5, 7.30 eta 10.30etan.
- San Andares auzoko jaiak:
- Xake txapelketa. Goizeko 9.30etan.

- Haurrentzako bigantxak, arratsaldeko 4etan.
- Dantzaldia: Gaurko taldearekin, gaueko 10.30etan.
- Goardiako farmazia:
L. Amezua. Sta. Marina.

30 ASTELEHENA

- Zinea: Alai: "El club de los poetas muertos" 7 eta 9.30etan
- San Andres auzoko jaiak:
- Haurrentzako txokolatada, arratsaldeko 4etan.
- Dantzaldia: Berakatz Band taldearekin, gaueko 10.30etan.
- Bigantxak, gaueko 12etan.
- Goardiako farmazia:
A. Ruiz. Magdalena.

1 ASTEARTEA

- Zinea: Alai: "El club de los poetas muertos" 7 eta 9.30etan
- Goardiako farmazia:
Morales. San Andres.

2 ASTEAZKENA:

- Zinea: Alai: Ez dago emanaldirik.
- Goardiako farmazia:
Azkoaga. Ferrerías

3 OSTEGUNA

- Zinekub: "El nombre de la rosa". Amaia antzokian, arratsaldeko 8.30etan.
- Goardiako farmazia:
Español. Iturriotz.

IKASTARROAK

- **Clown ikastaroa.** Hamazazpi urtetik gorakoentzat. Apirilaren 28tik maiatzaren 1era. Goizez eta arratsaldez. Izen emateak Gazte Zerbitzuan. Matrikula doan.
- **Jota ikastaroa.** 15 urtetik gorakoentzat. Maiatzeko eta ekaineko ostiraletan, 7etatik 8.30etara. Izen emateak Gazte Zerbitzuan. Matrikula doan.
- **Zanko ikastaroa.** Maiatza eta ekaineko larunbatetan, 4.30etatik 6.30etara. Izen emateak Gazte Zerbitzuan. Matrikula doan.
- **Unix Inducción.** Arrasateko Imik antolatuta, maiatzaren 7tik 11ra bitartean. Izen emateak Arrasateko IMin
- **Ikastaroak Monterron Kultur Etxean.** Sexualitatea, Jantzigintza, Puntua eta gakorratza, Eskulan Tailerak, Hitzaldi-elkaritzetak, Osasuna eta emakumearekin lotutako gaiak. Informazioa eta izen ematea, Udaletxeko Kultura Departamentuan, 79 09 00

LEHIAKETAK

- **II. Gernika Piano Lehiaketa.** Antolatzailea, Gernikako Musikazale Gazteak. Informazio gehiago Gazte Zerbitzuan.
- **Argazki lehiaketa.** "Gazteak gazteen ikuspuntuetik", gaiaren inguruan. Lanak aurkezteko epea, maiatzak 2tik uztailaren 5era. Antolatzailea, Arrasateko Gazte Zerbitzua. Oinarritzeko arauak jasotzeko, Gazte Zerbitzura jo

*Diru asko ala gutxi,
ez ondotik pasa,
ez begiak itxi.*

*Sartu, ikusi...
eta komeni bazaizu erosi.*

Santamaina kalea 36, Tfnoa: 79 92 62 Faxa: 791489 ARRASATE



Zabalik gaude!!! Erakusketa berria Santamainan

ARRASATEKO UDALA

SAN JUAN 1990 KARTEL LEHIAKETARAKO DEIALDIA

Udaletxe honetako **Kultura Sailean** deialdi hau arautzen duten **Oinarriak** interesatu guztien esku daude.

Arrasaten, 1990eko apirilaren 25ean.

Alkatea

“Gerra Zibila bukatzean planifikatzaile bati Euskal Herriko industrialde garrantzitsuenaren kokalekua hautatzeko eskatu balitzaio, Arrasate aukera gutxienez artetik agertuko zatekeen. Herri txikia eta ez oso deigarria, 1940an 8.645 biztanleko populazioarekin, haran sakonean kokatua, mendi artean, bere kale estu eta XV. mendeko edifizioekin, Arrasatek leku gutxi zeukan industria garatzeko eta populazioa hazteko.

(...) Arrasatek bazuen, ordea, industria garatzeko ezaugarri bat: mendeetako tradizio industrial. Toledo-ko ezpata famatuak Arrasateko altzairuez egiten ziren”

(William Foote White eta Kathleen King Whitek, "Mondragon: más que una utopía" liburuan)

“Arrasateko saihesbideari buruz dihardugu; Errepedetako Departamentuaren halabeharra edo destinua izango da, baina gure etxe aurrera datorkigu.

Adierazi gura dugu Foru Aldundiak inoiz ere ez duela zirkunstantzia hau aztertu, erakutsi dizkiguten planuen arabera behintzat. Dagokion eskabidea bidali ondoren erantzunik jaso ez dugula, eta behin eta berriro telefonoz deitu ondoren, kasu honetan egon daitekeen erantzunik txarrena jaso dugu: saihesbideko bi norabideak gurutzatu beharko ditugu, hirigune zaharretik etxera etortzeko dagoen arriskuarekin; eta etxetik hirigunera joateko Bergara norabideko saihesbidera irten beharko dugu (gutxi gorabehera 300 metro), gero errepede nagusia gurutzatzeko (orain ere bi norabideak), gero lantokira joateko.

Ez al duzue uste Foru Aldundiak honelako proiektu bat burutu behar duenengan, afektatuarengana jo beharko lukeela eta horrela soluziobide egokia bilatu proiektua aurrera eraman baino lehen?”

(Irene Etxebarria Urrutia arrasatearrak, DVko "Cartas al director" sailean)

Euskarazko egunkariaren proiektuak direla eta zure eritzia?


Euskaraz kaleratuko den egunkariarena, prozesu geldiezina da. Eman ditu jadanik derrigorrezkoak ziren pausuak: ideia izatetik, helburu zehatzago modura planteiatua izatera.

Egunkaria nork finantziatu, kontrolatu eta argitaratuko duen arazok ordea, oraindik ere emango du zer esanik. Ni formula ireki, sendo eta errealenaren aldekoa naiz, alegia, alde batetik eta bestetik egunkariaren alde lanean aritu direnen proiektu bateratzailearen alde. Asko izan dira, azken urte hauetan, euskarazko egunkariaren plana indartuz aritu direnak, jarrera eta ideia desberdindun jende asko, baina egunkari euskaldunaren egitasmoaz bat eginik. Eta plan hori, gauzatuz doa, eta, agian 1991.eko lehenetan, kalean izango ditugu argitalpenaren lehen aleak. Baina, gauzatze bide horretan, ezinbestekoa da instituzio politikoaren konpromezua, udal zein gobernu mailan. Dirulaguntza beharrezkoa da, egunkaria bera kalean ikustea den bezalaxe.

"Egunkaria sortzen" taldeak eman ditu dagoeneko hainbat pausu, garrantzitsuak, baina horietatik bat, niretzat pisutsuena, egunkaria aterako delako kontzientzia sortzearena.

Eusko Jaurlaritzak, hainbat ikerketa egin ditu ere, eta entzun dudanez, beste horrenbeste egingo euskarazko egunerokoaren bidegarritasuna finkatzeko. Ondo deritzot, baina hauen ondorioz, "Egunkaria sortzen" bezalako jende/ asmo biltzailea den taldea bazterturik uzten bada, kale egin dute. Egunkaria geldiezina dela esan dudanez bezala, atrebiztzen naiz esatera proiektu ireki, profesional eta serioa egiten ez badute, energi galtze ikaragarria izango dela, proiektua bera itotzeko adinakoa. Eta ezin da orain, euskarazko egunkariaren inguruan amas daitekeen energia galdu eragin.

E. Arana
EHUko irakaslea



LA UNION

Garaje elektro-mekanikoa
Agentzia ofiziala

Tailerra: Zaldispe 2,
Erakusketa: Sancho Abarca 6,

ARRASATE Tfnoa: 79 97 12



ITURRIOTZ taberna

GIRORIK

JATORRENA !!

Tfnoa: 79 16 04



ETXE-AUNDI

Dastapen-menua
maiatzaren 4 rako

- Meloi-zuku hotza otarrainskekin
- Ahate-konfitearen entsalada epela perretxikoekin
- Txahal-solomoa espinaka gainean Rossini saltsaz
- Errekako amorraia ziap-sabaionez eta piper muturtxodunen saltsa
- Gaztanbera eta irasagarrezko tarta, almendrakonpotaz.

2.900 pza BEZ berr

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI

Euskal egunkaria udazkenerako?

"Egunkaria sortzen"-ek landutako proiektuaren arauera

Asteazken arratsaldean Pello Zubiria izan genuen Monterronen, "Egunkaria sortzen" taldeak Euskal egunkariaren inguruan prestatu duen egitasmoaren hainbat xehetasun emateko.

Euskalgintzaren munduko 60 pertsona bildu, eta azaroaren leian jarri abiatu ziren.

Bi batzordetan banatu zuten lana: ekonomikoa bata, eta kazetariena bestea.

Merkatu eta irakurle goaren estudio sakonak egin eta gero, aurkeztu berri dute Gasteiz eta Iruñeko gobernuetan euren asmoa: euskara hutsean

egindako egunkaria, zabala, nazionala, instituzioen diru-laguntzaz, baina ez litzatekeena hauen kontrolpean egongo.

Aurre-ikuspenen arauera, 150 bat milioi beharko lirateke egunkaria plazaratzeko; kopuru horren heren bat "Egunkaria sortzen" taldeak aportatuko luke, beste heren bat akzio bidez, eta azken 50 milioiak enpresaren mundutik lortzea litzateke helburua.

Euskararekiko militantzia eta konpromezua azpimarratu ziren funtsezko ezaugarri gisa: bai erosle, bai irakurle, bai kazetari, eta bai

bultzatzaileen aldetik ere.

7.000 aleko tirada izango luke, eta 40 orrialde eskainiko litzuzke ohizko gaien inguruan.

Urtero 100-150 milioi inguruko galerak sortuko direla eta, hor sartzen dira jokoan instituzioetatik lortu nahi dituzten subentzioak.

Euskal egunkaria 1990eko udazkenerako kaleratu nahi dute.

Dena den, eskualdez-eskualde egindako informazio kanpainari ekin diote, eta laster izango ditugu inguru hauetan, nahi beste argitasun emateko. Horren ondoren, diru-bilketari ekingo liokete.



Hementxe dituzue Musakolako S. Frantzisko Xabier ikastolako 5. eta 6. mailako neska-mutiko alaiak. Maila horietako hiru talde Trafiko Zuzendaritzak Gipuzkoa mailan antolatutako Bide Hezkuntzari buruzko lehiaketara aurkeztu, eta egindako lan txukunek ordaina izan dute, hainbat sari irabazi dituzte eta: batzuk bizikletak, kalkulagailuak besteak, argazki makinak...5. mailako talde irabazleak aurrera egin du eta orain Elkarte Autonomo mailan lehiatuko dira. Zorionak eta zorte on!

AUKERARIK ZABALENA LENTILATAN



- Gogorak
- Porodunak
- Bigunak
- Kosmetikoak
- Erabilpen iraunkorrekoak

Egoki geratuko zaizkizun garantia osoa!

Eta bestela, LENTILEN ORDAINA ITZULIKO DIZUGU

Zure betaurreko eta lentilen aseguruia dohainik

Kontzeziño kalea 6, Tfnoa: 79 25 98 Arrasate

■ Durango-Beasain errepeidea

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Durango-Beasain errepeide berriaren lehen epearen lanak aurrera ditzake. Errepeide hau Epeletik zehar etorriko da Arrasatera, Kanpantzar igarotzeko tunela egingo delarik. Tunel honek zenbait arazo tekniko sortu ditu, oraindik ere zehaztu gabe bait dago nondik nora egingo den.

Durango-Beasain errepeidea 1990-92 urteen bitartean egitea espero da, eta 2.000 milioiko kostoa izango du.

■ Kulturakoen oharra


Kultura Batzordekoek barkamena eskatu nahi dute, ostiralerako iragarrita zegoen "El Angel caido" antzeslanaren suspentsioaren berri eman ez zutelako. Badirudi "Tunantes del Norte" taldearen eta Udalaren arteko azken orduko desadostasunek izan zutela suspentsioaren errua. Dena den, antza denez, "Tunantes del Norte" taldeko emakumeek maiatzean eskainiko dute obra horren estreinua.

■ Geriatri ikastaroa

Hasi berria da Abaroan, Udalak antolatutako Geriatri ikastaroa. 42 pertsonak eman zuten izena, baina azkenean 20 bakarrik onartu dituzte. Kasualitatez, denak dira emakumeak. Helburua, langabetu hauei pertsona nagusiekin lan egiteko prestakuntza egokia ematea da.

■ San Andreseko jaiak

Urtero bezala, aurtien ere maiatzaren bataren inguruan ospatuko dira San Andres auzoko jaiak. Ostiraletik astearte gauerarte, giro aparta hurbiltzen den ororentzat.



Sei arrasatear epaituak

Asteartean protesta-ekintza ugari

Astelehen eta asteartean, sei arrasatear epaitu zituzten Madrilgo Entzutegi Nazionalan, ETako kide izatearen salaketapean.

Astelehenekoan, Beronika Garai, Kristina Zeziaga eta Lorea Zeziaga epaitu zituzten, fiskalak 8 urteko gartzela zigorra eskatu zuelarik baikoitzarentzat. Lorea ez zen Epaitegi-
ra azaldu.

Asteartean, oster, Igor Letona, Xabier Atxa eta Joseba Korta izan

ziren Entzutegitik pasa zirenak. Igor eta Josebarentzat zortzi urteko zigorra, eta Xabierrentzat 16koa eskatzen baziren ere, azkenean fiskalak 4 eta 8 urtera jaitsi zuen eskaria.

Arbolapetatik irtendako autobusez gain, beste hainbat protesta-ekintza burutu dira herrian egun hauetan. Manifestaldiak, asteartean hainbat ikastetxetan burututako greba, senideen enkartelada, etab.

Epailen erabakia, 10 egun barru.

■ Telefonikak Arrasate izena onartu

Telefonikak onartu berri du Udalak aspaldi luzatutako eskaera, zeinen arauera, datorren urtetik aurrera telefono zenbakien listinean Arrasate izena agertuko den, *Mon-dragon* agertu beharrean.

■ Txiste Txapelketa

Maiatzaren 5ean, gaueko 10.30etan hasita, Deba Gariko II. Txiste Txapelketa egingo da Bergarako Maria Lagundia ikastolako antzokian. Sari nagusia, 30.000 pta. Umore ona soberan duen edonork, beraz, badaki noiz eta non duen zita.



Arrasateko jatetxea

Olarte kantoia 3,
Ifnoa: 79 84 53

KIROLDEGI JATETXEA

EGUNEKO MENUA
ETA KARTA

Musakola Auzoa. 79 82 31



Alde Zaharraren berregokipena

Plenoan onartzen bada, gero erakustaldi publikoa

Ostiralean aurkeztuko zaio Udaleko plenoari, Arrasateko Alde Zaharra berregokitzeko egitasmoa. Mankomunitateak bultzatuta, 1985ean jarri zuten martxan orain amaitu berria den azterketa.

Hiru arkitektu, soziologo bat, errepide-injineru bat, ekonomista bat, hiru apailari eta abokatu bi aritu dira lehen fase hau lantzen.

Txostena herriko kasko zaharrari dagokio. Ondorengo faseetan, Gazteluondoko arrabala, Maalakoa, Olate eta Otorra kaleak, etab. hartuko lirateke kontuan. Helburua, egitasmo guztia 1998rako bukatzea.

Berregokipenaren aurre-planifikazioa egin da, Eusko Jaurlaritzak kontuan har dezan zenbateko dirukopurua eman beharko lukeen laguntzatan, etxebizitza eta komertzio jabeek obrak has ditzaten; azken finean, pertsona bakoitza bait da

bere propietatea eraldatzeko erabakia hartu behar duena.

Udalak, bere aldetik, toki edo gune publikoen hobekuntza-gastuak hartu beharko lituzke bere gain.

Teilatu eta fatxadak egokitzea, bame-banaketa berria egitea, instalazio elektrikoak konpontzea, suteen aurkako segurtasun-neurriak hartzea...etab. luzea hartu da kontutan.

Era berean, onartua izanez gero, txostena dokumentu juridiko bihurtuko denez, bertako biztanleen esku-bide eta betebeharrak arautuko ditu; hau da, zer egin dezakeen bakoitzak eta zer ez: non egin daitezkeen lanak, nola, ze materialekin...

Udalak ostiraleko plenoan aurrera egitea erabakitzen badu, lehenik erakustaldi publikoa irekiko litzateke, interesatuek informazioa jaso, eta beharrezko alegazioak egin ditzaten.

Usteak uste...

"Euskaldunon elkarlana posible ote?". Hori da AEDK aste honetan antolatu duen hitzaldiaren izenburua eta euskaldunok geure buruan maiz askotan egin diogun galdera.

Luze eta zabal hitz egin liteke guzti horretaz, azken urteotan behintzat herri hau bitan banatu duen patu ilunaz. Erakunde eta egitasmo asko izan dira bitan gutxienik banatu direnak: Hizkuntza Akademia, sindikatu, alderdi politiko, talde ekologista, Autonomi Estatutua, eta zer ez.

Azkenean laster baterako iragartzen zaigun zorioneko euskal egunkaria, bat barik, bi izan beharko direla ikusten da. Hor ere ezin bat etorri eta agian ez dago beste erremediorik. Azkenean merkatuaren legeak esango du.

Guzti hori horrela izanda, eguneroko gauzetan ez dut uste euskaldunon gaitasuna elkarlanerako beste herri batzuen bano okerra edo eskasagoa denik. Huntaz eta hartaz eritzi desberdinak izatea normala da, baita errealitate bera ulertzeko moduz ere, Arrasate Musikal zela eta, Arrasate Telebistako *Zenbat buru, hainbat aburu* mahainguruan ederto ikusi genuen bezala, baina azkenean Bergarako Udalak Eibarko herriari ur gehiago ematea erabaki duela irakurtzen dugunean, badakigu geu ere, zenbaitetan kontrakoa inuditu arren, elkarlanean aritzeko gai garela.

Joxe Aranzabal


M. Angeles Garbala eta Jose Alberdi doktoreak

KONTSULTA OFTALMOLOGIKOA

Ordua aldeaz aurretik eskatu astelehenetik ostiralera arratsaldeaz.

Partikularrak eta Lagun Aro.

J.C. Guerra kalea, 1-3.eskuina. Tfnoa: 77 08 96 ARRASATE



Turismo industrialaren azterketa

Zorione Garitanok azpiegitura eskaxa azpimarratu

Zorione Garitanok bukatu berri du Udalak urriaren hasieran eskatutako Arrasate eta inguruetako Turismo Industrialaren azterketa. Informazio iturritzat inguruetako enpresa, jatetxe eta ostalak erabili dituelarik.

Arrasaten, berezko turismoa ez da ia existitu ere egiten. 1989an etorritako 6.765 kanpotar ia guztiak negozio bidaian hurbildu ziren.

Lo egiteko orduan, hiru ostal besterik ez dituzte aurkitzen. 39 logela, 66 plazarekin. Gabezia horren aurrean, bixitariek Gasteiz,

Donostia eta Bilbora jotzen dute.

Bazkal eta afalordurako, 13 jate-txe (hiru ostalez gain). Eta horien kalitatea zalantzan jartzen ez bada ere, gehienek nahiago izaten dituzte Bergara edo Aretxabaletakoak.

Zurrutean ibiltzeko orduan, ostera, inolako arazorik ez. Kafetegi, taberna, eta antzekoen artean 101 egiten dute guztira.

Jan eta lo egiteko orduan, beraz, Arrasateren eskaintza ez omen da nahi bezain ona. Txostena eskuan, Udalaren txanda dugu orain konponbideak aurkitzeko.

“Culturas de Fagor”

Astelehenean argitaratu zen izenburu horrekin, Davydd Greenwood eta Jose Luis Gonzalezek zuzendutako taldeak burutu duen liburua. Bertan, kooperatiben gaineko azterketa antropologikoa egiten da: sortu zirenetik izan dituzten gorabeherak, ispilatzen duten dibertsitatea, agintea, integrazio eta parte-hartze maila, ikerketa, etab.

Txertoa argitaletxeak kaleratu berri duen liburuan, hainbat jende hartu du parte: Julio Canton, Ino Galparsoro, Alex Goirizelaia, Isabel Legarreta, Kepa Salaberria, etab. luzeak.

Udaleko plenoa

Ostiral honetan Udalak Monterronen burutuko duen plenoan, Hirigintzarekin lotutako gaiak izango ditugu nagusi. Hainbat proiekturen onespena eta aldaketa proposatu da, Erdigune eta auzoetan egin beharreko obretan batez ere. Denen gaitetik, halere, Iturripeko kiroldegia eta Ferixalekuko pilotalekuko proiektuen adjudikazioak erabakiko dira.

Jaiotzak

Barreiro Sanz de Bikuña, *Maddalen*.
Apirilaren 16an.
Díaz García, *Sonia*. 19an.
Gorosabel Sagarna, *Alazne*. 19an
Gallastegi Loiti, *Itxaso*. 19an.
Gonzalez Aspe, *Ane*, 20an.
Abasolo Ugarteburu, *Odile*. 23an.

LASAGABASTER

Jantzidenda

*Bertan izango duzu beti modako
gauzarik onenen aukera zabalena*

SASKI-NASKI

lehiaketa


Asteroko sariak



KOLTA

Aranzabal Akobe
elektrogailuak

ROWENTA
ESKU-ASPIRAGAILUA




MELIA BIDAIK

Etxe Aundi jatetxea



AFARI BAT
BI LAGUNENTZAT



**OKENDO
KIROLAK**

ZAPATILAK



Ikatz
argazki etxea



ARGAZKI MAKINA
AUTOMATIKOA



ASTE HONETAKO
SARITUAK

VANESA ROMERO
Esku-aspiragailua

MONIKA GALINDO
Bi lagunentzako afaria

ESTHER MERINO
Kirol zapatilak

RAUL GARCIA
Argazki makina

Hileko sari handia



Ikatz
argazki etxea

80.000 pta.ko
reflex argazki
makina



Galdera:

Zer izen du ATBko mahainguruak?

Erantzuna:

Izen-deiturak:

Helbidea: Adina: Tlfnoa:



Saihesbidea, berandu eta txarto

Euriteekin, lurbiziak eta brintzak errepidean

Apirilean jausitako euriteek, hainbat arazo sortu dute oraindik amaitu barik dagoen saihesbidean.

Oxifiatik San Josepera doan tra-moan, joan den asteburuan lehenen-go brintzak agertu ziren asfaltuan; horrez gain, bizpahiru puntutan lur jauzi haundiak gertatu dira (eta argazkietan nabari duzue, lur jauzi horiek bihurturik irtetzerakoan daude, hau da, gidariari bapatean agertuko zaizkio).

Aipatu ere aipatu zen maiatzean ireki zitekeela saihesbidea autoentzat; baina badirudi ez dela posible

izango. Nafarroa Etorbideko sarre-ra-irteera amaitzea falta zaie, eta baita aglomeratua bota eta marrak pintatzea ere. Euri zaparradak medio, 15 egun daramatzate geldirik.

Saihesbidearen lanak "Altuna y Urfa" enpresari adjudikatu zitzaizkion. 1987ko ekainean hasi ziren lanean, 88ko abenduan bukatzeko.

Urte t'erdiko atzerapen horren ondorioz, ia bikoiztu egin dira hasieran aurrekontutako 707 milioiak.

Arrasateko saihesbidea, beraz, berandu, garesti, eta ez arrisku barik datorriguna.

Elbarrituentzako abisua

Laster Arrasateko Kiroldegiko sarrerak elbarrituentzat egokitu behar direnez, beraientzat ekintza ezberdinak antolatzeke aukera egongo da; horretarako elbarrituen lankidetzaren beharrezkoa denez, datorren ostegunean, maiatzak 3, arratsaldeko seietan Abaroa Jubilatu-Etxean egin zen batzarrera gonbidatu zitzaie.

Ikastolarako jangela

San Frantzisko Xabier ikastolak izan dituen eskaerak direla medio, 1990-91 ikasturterako Jangela zerbitzua irekiko du. Jangela hori Uribarri auzoko Jokin Zaitegi ikastetxean kokatuko da, beste auzoetako ikasleak autobusez garraiatuko dituztelarik.

Irakasle, ikasle eta ikasleen familiei irekia; sukaldari propioez, eta egutegi zabalaz.

Horrez gain, hilean birritan bideo saioak egongo dira. Liburutegia, eta ikasleentzako mota guztietako jokuak. Prezioa, 400 pta.

Argazki lehiaketa gazteentzat

Maiatzaren 2tik uztailaren 5era luzatuko da "Gazteak gazteen ikuspegitik" argazki lehiaketan lanak aurkezteko epea. Informazio bila dabilenak, jo beza Udaleko Gazte Zerbitzura, edo dei egin dezala 79 09 00 tfnora.

Josteko



OHALAK

Errekabarren 20, Tfnoa: 79 80 90
ARETXABALETA

"EDERTU"
ileapaindegia



San Andres auzoa 79 04 28

VE ECUADOR

Kontzesifio 2,
Tfnoa: 79 14 06
ARRASATE

KLINIKA DENTALA

DOANEKO AURREKONTUA

- * Odontologia orokorra
- * Protesi finkoa
- * Protesi mugikorra
- * Haur eta helduentzako ortodontzia

Iturriotz kalea, 7 bis-behea. Tfnoa: 79 73 88 ARRASATE

LARRINGAN

auto gidarien eskola

KLASE TEORIKOA
IRAKASLEAREKIN

Garibai 3, 79 22 96 ARRASATE



Grebak nolabait konpondu

Joma, Santageda, eta Osakidetzako langileak lanean

Astelehenean, lau ziren Arrasaten greban zeuden enpresak: Eskualde Ospitalea, Anbulategia, Santagedako gizonetzkoen Ospitale Psikiatrikoa eta Joma enpresa.

Jomako langileak eta zuzendaritza akordio batera iritsi ziren asteartean, zeinen arauera langileei %9ko igoera emango zaie aurten, eta datoren urterako IPCa igotzen denetiko bi puntu gehiago. Lan istripuen ondoriozko bajetan, gainera, enpresak %100a ordainduko du.

Santagedako psikiatrikoko langileak, berriz, asteazken goizean itzuli

ziren lanera, greba legala egiteko eskatuta zeuzkaten 6 egunak agortu ondoren. Dena den, oraindik ez dira akordio batera iritsi, eta langileek ez dute baztertzeko berriz mugagabeko grebari ekiteko posibilitatea.

Eskualde Ospitalean eta Anbulategian, berriz, 20 egun greban eman eta gero, badirudi behin behineko langileak lanera itzuliko direla, Joan zen ostiralean ELA, CCOO eta UGTk Osakidetzarekin hitzarmena sinatu eta gero. LAB ez zegoen ados, baina itxura denez mobilizazioak amaitutzat emango dira.

Fagorreko Batzarre nagusia

Asteazkenean, arratsaldeko 3ak inguruan eman zioten hasiera Amaia antzokian Fagor Elektra-tresnak kooperatibaren Batzarre Nagusi arruntari.

Hainbat puntu aurkeztu eta tratatu ziren bertan. Besteak beste: aurreko akten onarpenari buruzko txostena, memoriaren irakurketa eta onarpena, Fagor taldeari buruzko txostena, 1989ko balantzea, soberakin garbier banaketa, xedapen estatutarioak, bazkide laguntzaileen onarpena, II kongresu kooperatiboaren erabakiak, bigarren graduako entitateen gaiak (LKA, Lagun Aro...), etab.

Era berean, kooperatiba-kideek ordezkariaren hautaketa eta Kontseilu Errektoreko lehendakariaren berriztapenerako bozketan parte hartzeko aukera izan zuten.



Zunbeltz

Simon Arrieta Enparantza 2,
BERGARA

UDALA

Auto-eskola

Minusbaliatuentzako
klase bereziak

Otalora 25, Tfnoa: 79 88 56

URONDO elektrizitatea



- * Elektrogaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak

Nafarroa etorbidea 11, Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak:

- * Diagnostikoa - Orientazioa
- * Estimulazio goiztiarra
- * Erreabilitazio funtzionala (Psikomotrizitatea eta hizkun berreziera)
- * Logopedia
- * Laguntza terapia
- * Mota guztietako eskola arazoak, enuresia (Ohe bustitzea), eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea 10

ARRASATE TFNOA: 79 48 77



Zenbat buru, hainbat aburu programan zehar ikusle batek egingako galderari erantzunez, Aranguren baserriko **Bixente Pagoagak** sagardotegi bat ipintzekotan dabilela baieztatu zuen. Mahaingurua amaitutakoan Urkulu inguruko Arientzan jarri nahi duela jakin izan genuen. Ea bada, noizko mama gozua probatzeko aukera!



Iker Saizar eta **Aitziber Zumalde** guztiz arduraturik ikusi ahal izan genituen joan zen asteko azken soinu klasea eman eta gero. Antza denez, ez zien grazia handirik egin azterketa Sebero Altube plazan egin behar zutela jakiteak. Maisuak ez ezik, hainbat kurioso ere hurbilduko gara azterketa publiko hori entzutera. Zorte on, eta gainditu dezazuela denok.

Aurrera segitzen du arrakasta itzelaz **Saski-naski lehiaketak**. Argazkian, laugarren asteko irabazleak dituzue; Aranzabaleko aspiragailua **Belen Azurmendik** jaso zuen, Etxe-Aundiko afaria **Iban Delgadok**, Okendo Kirolak-en zapatilak **Amaia Umerezek**, eta argazkian agertzen ez den arren, Ikatz-eko argazki makina **Jesus Santiagok**.

*Saski-Naski lehiaketarekin jarraituz, esan behar Okendo Kirolakek dagoeneko lehenengo Sari nagusia banatu zuela. Irabazlea, argazkian bere amarekin agertzen den **Igor Baz**; berarentzat izan zen 80.000 pta.ko kirol-materiala.*



Ginekologi kontsulta

F. Cristobal doktorea
Jose M^a Gomez doktorea
A. Otalora doktorea
A. Estomba doktorea
M^a Jose Ruiz doktorea

Ana Zubizarreta doktorea: Nutrizioa, argaltzea, zelulitisa...
Jose Luis Higura: Kirurgia, basektomia...

Lagun-Aro, Asisa, Previsa, Capisa, Diputazio eta partikularrak.

Eskatu ordua, astelehenetik ostiralera 9,30etatik 12,30etara eta 3etatik 7,15etara
telefono honetan: 79 20 18

Zerkaosteta 17, behea

ARRASATE



◀ Eman du zeresanik, **Josemari Velez de Mendizabalek** orain gutxi kaleratutako *Sixties* liburuak. Hona hemen nola aurkeztu zuten Argiakoei, *Arrasate Pressen* kolaboratzaile fiñadugun idazle arrasatearra.



◀ **Altamirako jaien** egitasmoaren barruan, haur jolasak antolatu ziren larunbat arratsalderako. Euri zaparrada galanta, oster, eta hor aurkitu genituen mutiko hauek estalpean margotzen. Nahiz eta euria egin, umore ona eta ondo pasatzeko gogoak soberan.

izen propioak

■ **Unai Kabiketa**, 7, arrasatearra, Trafiko Zuzendaritzak antolatutako marrazki lehiaketan, Gipuzkoako bigarren saria irabazi du. Unai, San Frantzisko Xabier Ikastolan, San Antolinen, Oinarrizko Heziketa Orokorreko 2. maila ikasten dihardu, D eremuan.

■ **Pedro Luis Ormazabal**, 40, bergararra, Estatu Batuetara joan da urtebeterako, argazkilaritza ikastera. Pedro Luis argazkilaria da eta EEB-Betara bere lanbidean trebatzera joan da. 1982. urtetik aurrera Arrasaten lanean aritu da. Aurretiaz, Bergaran lan egin zuen.

Lehenengo batean **Ales Piku, Bego Perez, Ramon Basaldua** eta **Andone Beitia** bermeotarrak izan genituen bixitari *Arrasate Press-en*. Eurak ere gurearen antzeko aldizkaria sortzekotan omen dira, Bermeon ere euskarari bultzadaxoa emateko asmoz. Zorte on! ▶



■ **Jose Luis Gonzalez**, 46, Barakaldon jaiotako arrasatearra, Urkideko zuzendari orokorra izango da maiatzaren 2tik aurrera. Gaur egun, Fagor-eko Pertsonal zuzendaria da. Filosofia ikasketak burutu zituen Seminarioan eta Gasteizen Komertzio. Lanpostu ugari bete ditu, Copreci, Fagor Elektratesnetan eta Fagor taldean. Zenbait Kontseilu Sozial eta Erretoreko kidea ere izan da.

★★★★ Zatoz Irlandara, ongi egon eta ingelesa ikasteko herrialdera ★★★★★ The Newman College Dublin

Udarako programa

- 10-14 urte bitarteko ikasleentzako klaseak
Arrasatetik bertatik irakasle batekin joango direlarik
- 15-18 urte bitarteko ikasleentzako klaseak
Arrasatetik bertatik irakasle batekin joango direlarik
- 18 urte gorakoentzako klaseak

Zuzeneko hegaldaldiak daude Gasteiztik eta Bilbotik

Datak: Uztailaren 1etik 29ra

Uztailaren 29tik abuztuaren 26ra

Ikastaro hauetan sarturik daude

- 20 klase- ordu astean
- Pentsio osoa familia irlandar batean
- Londongo Trinity Collegeko azterketarako matrikula
- Egun bateko 3 txango
- Oinezko txangoak eta ikustaldi turistikoak leku interesgarrietara
- Kirolak: Igeriketa, tenisa, saski-baloia, squash eta abar
- Garraioak Dublineko aireportutik bertara
- Ikastaroan zehar erabili beharreko liburu guztiak


Informazio gehiago

Parlance Arrasate Olarte kalea 6, Arrasate Telefonoa: 77 06 83 (11.00-13.00 eta 15.00-17.00)

Arrasate Musikal Kontserbategi?

Udalak Akademiaren etorkizuna maiatzean erabakiko

Arrasateko Udalak, maiatzaren lehen egunetan, Arrasate Musikal Akademiaren etorkizunerako berebiziko garrantzia izango duen erabakia hartuko du, Akademiari babes ofiziala eman edo ez, hain zuzen. Arrazoi desberdinak direla medio, kinka larria bizi du erakundeak eta Udalarik Akademia beregain hartzea eskatu dio.



▲.besbatzeko zenbait ikasle entseian

Hamazortzi urte aurten

Arrasate Musikal 1972an, Juanito Arzamendiren eskutik sortu zen. Garai hartan, musika ikasteko, klase partikularrak ematen zituzten zenbait piano-irakasle baino ez zegoen eta Juanitok herriak zuen hutsunea somatuz, Akademia sortzea erabaki zuen, kontutan izanik Herriko Banda ere desagertua zela. Aprestuz eskola izandakoa Cerrajerak utzi eta bederatzik irakasle hasi ziren solfeo eta piano-ikasketak eskaintzen. Bi urte beranduago 1974ean, instrumentu-ikasketak gehitu zituen Akademiak eta hurrengo urtean Arrasate Musikal Orkestra sortu. Arrasate Musikal Orkestra, Estatuan ikasleek osatuta sortu zen lehen orkestra izan zen. Harrez gero, Akademiak ikasleek musika ikasketak bukatzeko eta orkestra osatzen duten instrumentu guztiak ikasteko aukera eskaintzeko politika izan du. 1988an Soinu Orkestra sortu zuen eta horrez gain, ganbara musika taldeak ere baditu.

Arrasate Musikalek gaur egun, 600

ikasle ditu. Eta bertan ikasleek, solfeo, piano, bibolina, biola, biolontxelo, kontrabajua, soina, txistua, kitarra, flauta, oboea, klarineta, fagota, tronpa, tronboia, tuba, perkusioa, baleta eta armonia ikasteko aukera dute.

Inork gutxik ukatuko du Arrasate Musikalek Arrasateko musika kulturaren alde egin duen lana. Hala ere, azken urteotan diru arazo larriak sortu zaizkio eta erakundearen etorkizuna kinka larrian dago.

zezakeela eta, egun osoz klaseak ematen zituzten irakasleei kontratuak egin zizkien. Aurrekontuek beraz, igoera handia izan zuten eta egoerari aurre egiteko Udalarik 16 milioi eskatu zituztela, kuotak igo ondoren.

Kuotak igotzearekin, matrikula-zioetan beherakada nabaria eman zen, eta Akademiako arduradunek, kuotak gehiago ezin jaso zitezkeela somatu zuten. Udalak, eskatu bezala 16 milioiko subentzioa eman beharrean 10 milioi eman zituzten eta, ondorioz, urtero urtero sei milioiko diru-galera izan dute.

Irakasleek aurten hiru urte egingo dute kontratuarekin, eta Akademiak mugagabeko kontratua egin edo beste irakasle batzuk kontratu erabaki behar du. Hasiera hasieratik beraiekin izan dituzten irakasleak Akademiak ez ditu kalean utzi nahi, alabaina, ez du finko egiteak suposatzen duen erantzunkizunari aurre egiteko biderik. Hau dela eta, Udalarik Akademia beregain hartzea eskatu diote.

Udalaren azterketa

Arrasateko Udaleko Hezkuntza Batzordeak, arazoaren nondik norakoak eta egoeraz jabetzeko Arrasate Musikali buruzko txosten mardula burutu du. Txosten hau, Aitor Orobengoa, Hezkuntza Batzordeburuak egin du.

Txosten egileak, Akademiak sortu zenetik izan duen bilakaera aztertu, beste herri batzuetan sortu diren Udal kontserbategiek eskaintzen dituzten ikasketekin gonbaratu, eta CAEMK

Azken hiru urteetan, urteko sei milioiko diru-galera izan ditu Arrasate Musikalek

Arazoen nondik norakoak

Orain dela hiru urte arte, Akademiaren klaseak ematen zituzten irakasleak, inolako kontratu, aseguru etab.ik gabe ari izan ziren. Erakundearen Batzordeak, egoerak horrela ezin segi

(Musika Irakaskuntzaren Kontseilu Aholkulariak) Autonomi Elkarteak musika ikasketak arautzeko egiten dituen proposamenak aztertu ondoren, bi proposamen luzatu ditu, Deba Garairako Kontserbategi bihurtzea edota

dirulaguntza handiagoa eskainiz, pribatu izaten segitzea, hain zuzen.

Kasu bietan, zenbait instrumentu-
ren ikasketak kendu egin beharko lirake, oso ikasle gutxi izanda, defizitazioak direlako. Honez gain, piano eta bibolin ikasketek "numeros clausus" delakoak izan beharko lituzkete.

Arrasate Musikalekoen ustez, tresna horien irakaskuntza beharrezkoa da, gaur egun CAEM.k ere, kontserbategietan orkestra osatzen duten instrumentu guztien irakaskuntza bultzatzen du eta.

Aipatzekoa da, CAEMk, Arrasate Musikalen egoera ikusirik batzordea eratu duela gaia eztabaidatzeko eta Udaleko Hezkuntza Batzordearekin bilera burutuko du epe laburrean.



Balet ikasten gehien bat emakumeek dihardute

Udal Kontserbategia nahi dugu

Juan Luis Castillo dugu Arrasate Musikaleko lehendakaria. Bere hitzetan, Udalak Arrasate Musikalen egoera aztertzeko burutu duen txostenak merito handia du, sakona eta mardula bait da. Edonola ere, ez dator bat txosten horren konklusioekin. "Gure ustez Udalak aurkeztzen dituen proposamenek ez diote irtenbiderik eskaintzen Arrasate Musikali".

"Arrasate Musikal Deba Garairako kontserbategi bihurtzeak, herri bakoitzari dagokion ikasle kopuruan, udal bakoitzak eskainiko duen diruan, etab, bailarako Udal guztiak ados jarzea eskatzen du. Argi dago, udal bakoitzak bere herrian izan nahi duela kontserbategia".

Ezin izango litzateke epe laburrean bailarako kontserbategia egin eta Arrasate Musikalek berehalako

irtenbidea behar omen du.

Juan Luis Castilloren ustez, Arrasate Musikalek bizi itxaropen eskasa izango luke, pribatu izaten segituko bahu. "Nahiz eta Udalak diru gehiago eskaini, Arrasate Musikal urte batzutan desagertu egingo litzateke. Lokalen arazoari guk egin beharko genioke aurre, irakasleei lanpostu finkoa eskaintzean, askoz ere soldata altuagoa izan beharko lukete eta ez genuke azterketak guk egiteko aukerarik izango".

Juan Luisek inguruko herrietan Udal Kontserbategiak sortzeko arriskua ikusten du. Matrikulazioak kontserbategi horiei eman beharko genizkieke, eta azterketak beraiek egingo lituzketeclarik, ikasleok ere herri horietara joko likete. Gaur egun, azterketak Donostiako kontserbategiko irakasleek egiten dituzte

eta goi mailetako ikasleek ikastera Donostiara jo ohi dute, hango irakasleek egiten dizkietelako azterketak.

Arrasate Musikalekoek, beraz, oinarri mailako Udal Kontserbategia bihurtzea nahi dute. "Arrasate Musikalek, erdi mailako kontserbategi izateko baldintzak baditu, baina hasiera batean oinarri mailakoa egitea errezagoa litzateke eta lokalak egokituakoa, erdi mailako kontserbategi bihurtzeko".

Arrasate Musikalekoen ustez, sortu zenetik hamazortzi urte pasa direnean, heldu da Udalak erakunde bere gain hartzeko ordua. "Tende askoren borondate ona dela eta mantendu ahal izan da orain arte. Orkestrak herria mundu zabalean ezagutzera eman du eta ordua da Udalak errekonozimendu ofiziala eman diezaión".

**X. GOROSARRI eta
M. L. TROJAOLA**

ERREUMATOLOGIAN SENDAGILE ESPEZIALISTAK

Frantziako Lyon-go Unibertsitatean Titulatuak

BIZKARREZURTERAPIA

KONTSULTA ORDUA AURREZ ESKATU

San Vicente Ferrer, 4 etxeba. Esk. ARRASATE Tfnoa: 79 27 67

San Jose Policlínica. GASTEIZ Tfnoa: 945-22 33 00

BRANKA

jatetxea

Eguneko menua eta karta

Monterron Kultur Etxea

EMAKUMEENTZAKO IHARDUERA EGITARAUA

| | | |
|------------|--|--------------|
| Astelehena | Sexualitateari buruzko ikastaroa | 15.30 -18.00 |
| Asteartea | 1.- Jantzigintza 2.- Puntua eta gakorratza | 15.30 -18.00 |
| Asteazkena | Eskulan Tailerrak | 15.30 -18.00 |
| Osteguna | Hitzaldi-elkarrizketak Bideo Emanaldiak Osasuna eta emakumearekin lotutako gaiak | 16.00 -17.30 |

Egizu aukera!

Informazio eta izenematea: Udaletxeko Kultura Sailean

Telefonoa: 79 09 00

Plaza mugatuak

Matrikula: 3.000 pta.

Maiatzean kultur ekintza interesgarriak Amaia Antzokian

ANTZERKIAMaiatzak 5 Goliardos "A puerta cerrada" J. P. Sartre.

TXOTXONGILOA.....Maiatzak 12 Gorakada "Gorakada Zirkoa"

DANTZA.....Maiatzak 19 Lore Gazteak Dantza Taldea

ZINEMA.....Maiatzak 3 El nombre de la rosa

10 Mañana sucederá

17 Los Crímenes del rosario

24 Elígeme

28tik ekaina 1era Zimena dokumentala

Mundu mailako estreinuekin

Arrasateko Udala



Ezkerretik eskumera; Jexus, Joxe Kasino, Luis eta Txelin.

Sekule izen ez dan moduko fiestie

Estepan Plazaola / Jexusmari Garai

"Ha ikusi ein bihe zuan, ha ezin leikek kontau" emon doskue sententzie. Siñisten dou geuk pe Arrasate Press-eko irakurle, nekez eraingo dotzuaule, dozenerdi papelokin, Iturripeko zezenplazan juntau zienen aiñako barre-karkaxaik.

Baiñe badakigu jakin, zuk, "54ko korridie" ikusteko aukerie izen bazauen, barru barrutik gozauko dozule, lau toriadorion ahotik, orduko "pase" eta "estokadak", zeure gomutan barrizten dittuzunien.

Eta uste dou uste, 54a baiño geruaukuentzat pe ez dala bertan aho-gozagarririk falta izengo.

Guk hau ein ddoun bittartien gozau dounen erdirik gozetako aukeraik emoten badotzuau, gu konforme.

Lore lurrindegia

Olarte kalea 10. Tfnoa: 79 14 99 ARRASATE

EPELDE

argazki denda

Iturriotz 24

“Toreruek Mondrauen eta kanpotik ekarri, zelan leikek hori!”

Luis: Periodikuen, Mondraueko reseña bat agertu zuan, Juan Juarez “el Andaluz” eta Eskoitzako ferrobriarixo batek, Salamancakue ero izan bie juan, Mondrauen toriau biher auiela, hospittalerako dirue atarateko.

Gu orduen soka-muturrien eta enbolauetan ibiltten gitzuan fiestaik-fiesta, afiziñue gauan haundixe. Eta ba, gu hementxe kuadrillie juntetan gitzuan eta periodikuen hori agertu zanian, Joxe Kasinok—hori zuan gure kaporaloi— esan juzkuan: “zueik hor zabitze fiestaik-fiesta golpiek hartzen eta horreik andaluzok zueik baiño gehixau dittuk, ala! Toreruek Mondrauen bertan euki eta kanpotik ekarri biher, zelan leikek hori!”.

Gu orduen pikau eñ gitzuan, eta inguruko guztiek ondiokan gehixau pikau eraitten juzkuen eta Joxen aittañarrebak, Fakundok: “Bueno, hau ondo preparau bihe juau” eta halan ekin gutzan.

“Hurrengo egunien alkatiei kartie emun gutzan”

Joxe: Aiuntamenture kartie bieldu gaixuan esanaz ba, “Mondrauen toreadoriek egonda ia zelan ekarri zittuen kanpotik, gaiñera hospittalerako dirue atarateko. Guk kuadrilla bat presentetan gauela”

Kartioi eñddekuen mahai gaiñien ipiñi gaixuan, kartioi firmetan auena matadorie izengo zala esanaz. Luisek di-da firmau juan. Ha kartie hurrego egunien Julio Otadui alkatiei Zerrajerara bieldu jakuan. Kartie 10.30etan allegauko zuan Zerrajerara bai, eta 12xetarako Zerrajera danak jaukan haren barri.

29 DE JUNIO DE 1954



PLAZA de TOROS de MONDRAGON
NOVILLADA BENEFICA
MATADORES: JUAN JUAREZ (El Andaluz)
LUIS BENGUA (LUISITO)
BANDERILLEROS: JESUS BEREIBAR (Jesusito)
JOSE MADINABEITIA (Chelin)
JOSE APERRIBAY (Niño Goseasa)
SOBRESALIENTE: ECHEVARRIA

Korridie eñ eta hurrengo urtien, Jose Letonak ainddute eñ auen Julio Galartak kuadruiu. San Juanetako eskaparatate konkursuen, bigarren premixue atara auen.

“12.30etan radiotik emun juen notizie”

Joxe: Orduen, “Radio Escuela Profesional” jauan eta 12.30etan danok ezenbe akorduik barik bazkaiten

geontzela radiotik emun juen notizioi. Jesus Berezibarrek entzun auenien, ahuen aukena iruntzi ezinde komu-nera eta Luis Bengoa, bazkaixe bertan behera itxitte kanpora. Etxuen hala-

BAKAILO ETXEA

Makailoa eta beroni buruzko produktuak
Makailoa, kroketa eta piper kazolak prestatzen ditugu

Mondragones 7, (Azoka ondoan) Tfnoa: 79 93 07 ARRASATE

ZUBIZARRETA TAILERRAK



Gipuzkoa Etorbidea 22
Tfnoa: 79 15 65 ARRASATE

koik espero itxurie, baiñe erabakixe hartute jauan eta eñ eñbihe zuan.

Txanboliñek estokie bieldu juzkuan, Elman txatarretan estoke erdixe agertu zala eta. Ha puliru ondo-ondo eta harekin entrenetan gitzuan.

"Zaku bat gaukan zezen morure"

Joxe: Gu hementxe lokalien, "Politena" tabernien azpikaldien entrenetan gitzuan, hementxe juntetan gitzuan kuadrillie. Juan Juarez, Ferreriasen entrenetan zuan, Juanito Txurrero zuan haren apoderaue ta. Bestie Eskoitzan entrenetan zuan, baiñe bueno pikioi, hemen jauan, Juan Juarez eta Luis Bengoan artien. Jente asko etorten zuan gure entrenamentuk ikusten.

Entrenamentuk zezen barik eitten gaixuan, zaku bat gaukan zezen morure jarritte. Jexus eta Txelin banderillokin eta Luis estokiaz, aurrien ipiñi zakuoi, zakuorri zirkulu gorri bat eñ eta benga, kuadrau, hankakin pausue ondo markau...ointxe! eta rrau barruraino. Eta Fakundok aldamenetik, "baiñe Luis, buztenetik sartu dutzek".



Ezkerretik eskumera zutik; Joxe Kasino, Lazpita anaiek eta Luis. Makurtute; Aperribai, Txelin, Jexus eta Eugenin Resusta

"Usté ya se atrevería con este toro?"

Luis: Joxe Kasinon aittaiñarrebak esaten juzkuan. "Hau serixue dok eh! Oñ Bittoixera zezen plazara fan bihe juau entrenetan". Hango kaporalaz berba einde jaukien eta hara allegau eta, "aparte uno". Adar txixixenak aukienak apartetan nittuan, baiñe ha-

labe haundixek, eh!

Hasten gitzuan eta lehenengo bi pasiek ondo baiñe hirugarrenien arri-metan jatan eta, blauzta, lurrera.

Etxeko-andrak bajekixien ze ordu-teko allegetan gitzen eta janai itxi eta

Korrída osteko bromak

Juan Manuel Azkuaga Zerrajerako direktorien semie zuan, eta Jexusek Zerrajeran eitten juan lana, eta ba, Casinora fan gitzen baten, Luisek esan jutzan Juan Manuelorri: "Oiga Juan Manuel, un enchufito para Jexus en la Unión Cerrajera. hombre!".

Eta harek: "oye, pues se hace lo que sea, ¿de qué le ponemos?"

Eta Luisek: "de corresponsal".

Orduen danok geratu gitzuan ba, ze ete dok korresponsal!

Eta Juan Manuelek preguntatu jutzan: "y oye Luis, qué es eso de corresponsal?"

Eta Luisek: "jode pues, reparar la correspondencia".

Joxe Kasino

"Halako espektakuloik sekule etxuat ikusi, korrída onena baiño gurau eh!"

Martín Zubizarreta

balkoittik zelan entrenetan gauen begire egoten zittuan, gu gustora hareik ikusitte.

Baten, Juarez be han suertau zuan eta jefiorrek "sobrerie" jaukan egundoko adarrakin eta esan jutzan: "¿Usté ya se atrevería con este toro?" bestiek, "Si me hacen el quite sí", "Usté, aunque le hagan veinte quites no torea eso. Usté con todo lo que

Mondragonesa Grafikagintza

Paperdenda. Mahaigaineko tresnak

Olarte 10, Tfnoa: 79 12 63

**FELIPE
MADINA
ZURAK**

Zarugalde 40, Arrasate 79 13 78

habla, con todo lo torero que es y andaluz, no va a matar. Este de Mon-dragón sí."

"Baifne mutillak, badakizue zer eifn biozuen?"

Jexus: Mazpelara perretxikotan juen gitzen baten, hango bolalekuen bokailue eitten bagazak eta Joxe Kasinon aittek, Luxiano difuntuek, esan juzkuan:

"Baifne mutillak, badakizue zer eifn biozuen? Nire semiei eziozue kasuik eifn. Diruik ez badauketzue neuk emungo dutzuet bai, eta juen zaitteze Gorbeixara. Han eifn hiru bat egun eta San Pedruak pasautekuen etorri zaitteze".

Eta Luisek esan jutzan: "Baifne papela firmaute daukau eta honezkero eifn einbiekau".

Holan geratu zuan.

"Juldaiifnen arrebiek, joskiñek, eifn jutzan traje andaluzoi"

Joxe: Torietako trajie pentsau bie-zala eta "de corto, traje andaluz" eifn



Manolak: Pepi Mendizabal, Mercedes Palacios eta Arantxa Zeziaga

jutzien, Juldaiifnen arrebiek, joskiñek, eifn jutzan traje andaluzoi, baifne "botas de montar" atara biherriene "botas de monte" atara jittuan eta sombrero kanperue, papelezkue, baifne ondo eh! Elegante.

"Aquello es de cuidau, ojo al cristo"

Joxe: Zezen plazioi Iturripen jarri

juen eta San Pedro bezperan han jeo-zan hiru zezenok, bakoxtak berie ele-jiruteko.

Bata egundokue zuan, bestie erdi-kue eta hirugarrena txikixaue.

Juan Juarezek, beretako hartu juan haundixena, nik erdikue eta Eskoitza-kuek txikixena. Honeik ondio ikusi barik jaukien zezenoi. Elejiru eta herrirutz natorrela, Ildefonso Herra-dor betenaixuaz, trill eifn naixuan bi-rien eta esan nutzan: "¿Oiga Ildefon-so, usté ha visto aquello?" eta harek "No, no he visto, ahora voy" nik or-duen "Jode, aquello es de cuidau, eh!., Ojo al cristo". Berak, "no jodas" eta nik, "No jodas no, aquellos cuer-nos hay que cortar por la mitad" eta esan jutzan "Bueno, pues si hay que cortar se cortan". Halan juen zuan, baifne etxakuen adarrak ebai, eh.

"Gaur oindio denporaz gazek mezie entzuteko"

Joxe: San Pedro egunien goixeko beratziretarako, ardaurik probau be eifn barik etorteko esan nutzian. Fan

"Manolak"

Korridiei kategorixie emutie gure auiea eta, ia "manola" urtengo gauen esan euzkuen. Guk ba, baietz urtengo gauela, eta halan juen gitzen.

Aurretik toreruek kotxe baten eta gu atzetik beste deskapitable baten. Hankak asientuen ipini eta atzien jarritte, elegante.

Bire guztien ziherru auen jentie eta zezen plazie be, bete-bete eindde. Ha ikustekue zan eh!

Oso popularra izen zan ha korridie. Zezen plazara ailegau gitzenien "buelta al ruedo" emun gauen eta prezidentziara. Korridako erregiflak izen gitzen.

Pepi Mendizabal, Mercedes Palacios eta Arantxa Zeziaga

VICTOR RUIZ MELGAR

Pintorea

Erdiko kale 32, 4.

79 12 63 (9etatik 1etara eta 4etatik Betara)

ARRASATE

Monte taberna

Maalako errabala 11, Tfnoa: 79 20 56

gitzuan zezeno i ikusten eta bueltan San Viator parien gatozela, 12xetako mezetarako kanpaiek. Etxakixat zeñ izen zan, baiñe batek esan juan: " Gaur ondio denporaz gazek mezie entzuteko" Esan da eñ, danok fan gitzuan mezie entzuten. Fan gitzeneko mezie hasitte jauan eta etzuan iñor konturetu sartu giñenik, baiñe halakon baten, batek atzera beittu juan eta apurke-apurke danak geuri begire.

Mezetatik urtendakuen hona etorri gitzuan bazkaitten, Jexusek eta Luissek, ure eran juen bakarrik eta Txeliefiek: " Messserez, baiñe messserez, itxirezue arda apur bat eraten, bestela ezineikek urten eta" kontrolaute eran juan apur bat.

"Mondraueko etxe gehixenetan kandelak ipiñi jittuen"

Joxe: Hau Luis, ondo fajau, traje kanperue ipiñi eta zezen plazarut urten gaixuan. Kotxie " Zitroen Patue" Eugenin Resustak konduziruten juan,



Arrasate Pasealekuen, zezen plazara birien

kotxiorren muturrien kapotie eta lora sorta edarra ipiñi eta dotore. Atzetik beste kotxe baten, " Manolak".

Hemendik, entrenamentuek eitten gittuen lekutik urten gaixuan. Musika bandie be, bertara etorri jakuan eta poliki-poliki erdiko kaletik zihher juen

gitzuan. Ha ikustekue zuan, eh!

Don Jose Luis Iñarra, parruku difuntuek urten eta altarara oiela erreztan esan juzkuan. Herriko neskak eta be, " Que tengas suerte Luis ! Ya hemos encendido las velas para que todo salga bien..." Eta Luis sonbreruz saludetan.



Pascilluen aurrengo; Luis, Juan Juarez eta Eskoitzakue. Atzien; Jesus, Txelin, Aperribai...

"Pagau guredan guztie eta korrida hobiaurik ezin ikusi, haxe izen zuan benetan gustora urtetekue"

Paulo Garai

Ikusi barik imajiñau be ezin leikek eñ. Mondraueko etxe gehixenetan kandelak ipiñi jittuen eta familixa asko errezaixue errezetan be egon zuan.

Zezen plazara aillegau eta ha zuan izetekue; inguruko zelaixek pe jentez

ESTETIKA ZENTROA

lurrundegia, opariak, jostailuak

Z a r r a o a

Kanpantorpea 4, Tfnoa: 79 12 19

**Hilbera
kafetegia**

Uribarri Etorbidea
ARRASATE

beteta. Neuri etxuztien pasetan itxi gure. Nik orduen honei deittu ta "Eh! gozak, etxak korridaiek, etxuztiek pasetan ixten da" Laster itxi juztien bai, gero!

"Rau, jausi zan eta geure artien, zelan jausi dok hori zezenoi ba? Gero kuadrillie mataderora juen giñen, ezpatie bihotzetik pasau ete eutzen jakin guran"

Julian Aranzabal

"Halako baten zezenorrek heldu eta Txelin aidien"

Joxe: Eskoitzakuek urten juan lehenengo eta bastante ondo eñ juan. Baiñe burrukioi Juan Juarez eta honeñ artien jauan. Hurrengo Juan Juarezek urten juan eta honeik egon ezinde; "guk noiz urten bihe juau ba!".



Jexus Berezibar, banderillak ipintten

Esan nutzian: "zuen zezena eztok hau, zueik, deskuiruen harrapetan bajok urten biozue bestelakuen ez". Honeik, harrapau zeixen desietan, urteteko. Bi, hiru bider harrapau juan eta ezin izen juan zezenik hill, Joxetxu Etxebarria "sobresalientiek" hill biher izen juan.

Azkenien heldu jatien txandie honei be. Joxetxu Etxebarriak eta Txeliñek "al alimón" pase batzuk

emun eta banderillak ipintteko ordue aillegau zuan.

Banderilleruek, Jexus eta Txelin izen zittuan. Jexusek ederto ipiñi jutzan. Eta Txelin, hau zuan "banderillero de salón", betik tabernetan banderillak ipintten ibiltten zuan eta ba, burladerotik urten eta tabernan eitten zittuen figurin danak eitten hasi zuan eta jentiek barrezka errebentau biher. Halako baten, zezenorrek heltzen jutzek eta jota aidien eruen juan.

Gero barriro urten auenien, ostera figurioñok eitten hasi zuan, baiñe zezenoi arrimau jakonien banderillak ipiñi zelabait eta aguro alde eñ juan handik.

"Bi belarri, buztena, hankie... muñekak, klabeliñak..."

Joxe: Gero Luisek urten juan muletiaz, publikuei brindau eta alkatiei eskatu jutzan permisue. Hasi zuan torietan eta pase polittek emun jutzan. Eta hala, ba, azkenien aillegau zuan zezenoi hiltteko ordue be.

Entrenamentuetan ipinitte gaukan



Gorka

ILEAPAINDEGIA




Bainetxe kalea 10, behea. Tfnoa: 79 96 80 eta 79 63 27
ARETXABALETA



zezenandik ze distantzitarra egon biher auen, baiñe honek orduen entrena-mentukue ahaztute jaukan eta zezenandik hoge metrora ero jauan. Nigan- dik bastante urrien jauan eta esan nu- tzan: "Luis, ze kristo dabik, urrau fan biok, urrau!" Orduen konturetu zuan, jarri zezenorren aurrien eta lehoien moruen fan zuan zezenorren gaiñera.

Plaza erdixe zutik jarri eta txaloka, beste erdixe barrezka errebentau bihe- rrien. Barre eiteko morukue zuan izen be, ze, estokioi "a la bandolera" sartu jutzan, zezenoi jeneral baten moruen itxi juan, ezpatioi albuena auela.

Gero hartu juan beste estoke bat, etxoïn jutzan zezenorri eta etxakixat



"Batzuk esaten juen 'A volapie' hill auela"

Joxe: Mondrauen zezenetan enten- diruten auen jentien egunetako disku- ziñue izen zuan, "ze tipotako estoka- die izen zan zezenoi hill auena". Bat- zuk esaten juen "a volapie" hill auela; beste batzuk Joselito Gallo, "Gallo Grande"n moruen hill auela.

Jose Añibarrok esan juan, berak behin bakarrik ikusi auela zezena ha- lan hillten.

Nobilladie akabau zaniene, jente guztie dirue botateko gertu jauan, bai- ñe, ez gaixuan kapoteik pasau, bestela oiñ be han jasotako diruen konture majo bizitteko moruen geontzan.

"Luis, mi enhorabuena"

Joxe: Guardazoillen ortue Luis Bengoak eta Juanito Guridik lanketan juen. Juergan abitzenien apurtxo bat eranezkero, sentiruten auiena aguro botaten juen. "Gora Euskadi" eta halakuek, eta harrapaezkero kuarteli- lora. Eta han ortuoi atxurketan euki- tten jittuen, behin baiño sarrixau.

Korridie akabau zaniene, hementxe geontzan terrazan, txikito batzuk har- tzen eta guardazoillen tenientie pasau zuan aurrera, gero atzera bueltau eta

"Guretzako itzeleko esitue izen zuan ha! Danok zutik jarri eta txaloka, barruraino sartutzelakuen eta bestekaldekek, errebentau biher barrezka, generala letxe ixegitte jaukan ezpatioi ta"
Pedro Sologaitoa "Laso"

Luisi beituaz esan jutzan, "Luis mi enhorabuena, usted ha toreau y ha matau muy bien el toro" Luisek, "muchas gracias señor" eta alde eñ auenien esan juan, "akabau dittuk or- tuko lanok".

Estepan Plazaola
Jexusmari Garai




Ezkerrekue, Antonio Arretxe, eta Luis bizkerrien daroiena, Elorrixoko Teran.

nun sartutzen, baiñe, etzuan gehixau mobiru.

Ha ikeragarrixe izen zuan, bi belarri, buztana, hankie eta zezen plaziei hiru buelta bizkerrien, muñekak, klabeiñak...bueno, zer etxutzien bota.

**Felipe
Arrizabalaga**
aroztegia



Legarre pabiloia Tfnoa: 79 22 76 ARRASATE

UGARTE
Industri hornidurak

Arrasate pascalekua
Tfnoa: 79 73 00 / 79 83 96
Telefax: 793412




Parques y Jardines

**PARKE ETA LORATEGIEN
SORKUNTZA**

**LORAZAINTZAKO
MANTENIMENDUA ORO HAR**

**LANDARE-BIRSORKUNTZA
HIDROEREINTZAZ**



Casa-Torre kalea. Tfnoa:94-681 90 82 ABADIÑO (BIZKAIA)

“Kooperatibek malgutasun handia dute”

William Foote Whyte

William Foote Whyte bere emaztearekin elkar lanean “Mondragón mas que una utopía” liburua kaleratu du. 76 urteko gizona, Cornell, New York hiriko unibertsitateko irakaslea, makinatxo bat ikustaldi egin ditu Arrasatera, herriko kooperatiben mugimendua ikertu asmoz.



William Foote Whyte

— Arrasate Press: Zerk bultzatu zintuen Arrasateko kooperatibak ikertzera?

— William: Horrelako enpresa motak oso arraroak dira EEBBetan. Zenbait esperientzia izan da, baina tamainu handiko ezer ere ez. 1970. urtean entzun nuen lehen aldiz, Arrasateko kooperatibei buruzko zertxobait. EEBBetan beharbada Espainian baino ezagunagoa da Arrasateko Kooperatiba mugimendua. 1974. urtean, kasualitatez, aldizkari batean artikulu bat irakurri nuen. Irakurritakoak oso erakarri gintuen eta gaiari buruzko interesa piztu zitzaigun.

1975ean Espainiara bidaiatu egin nuen eta Arrasatera etortzeko aukera izan nuen. Zorionez, garai hartan Jose M^a Arizmendiari oraindik bizirik zegoen. Berarekin hitzegiteko aukera izan nuen, nahiz eta Arrasaten hamabost egun baino ez egin. Gizon zirrargarria zen, giza eta etikaren baloreen eta zentzu praktikoaren arteko oso konbinaketa arraroa zuen bere baitan. Geroztik, makinatxo bat ikustaldi egin ditugu. 1983an krisi ekonomiko garaian ere etorri ginen eta kooperatibek krisialdiari nola aurre egin zioten aztertzeo aukera ere izan genuen.

— Zure hitzetan EEBBetan Espainian baino ezagunagoa da Arrasateko kooperatiba mugimendua. Zergatik?

— Ezin azal dezaket Es-

painian dagoen Arrasateri buruzko ezagupen falta. EEBBetan azken 10-15 urteetan, langile enpresen garapen handia egon da. Enpresa horietan langileek akzioak dituzte eta jabegoan parte hartzen dute.

Zenbait unibertsital zirkulutan enpresa motak aztertzeo interesa ere badago.

Bestalde irtenbide marxista baztertu duten zenbait talde erreformistak ere —oraingoz gutxi dira, baina gero eta indar handiagoa dute—, enpresa antolatzeko betiko erari alternatiba eskainiko dion zerbaiten bila dihardu. Talde horientzat, Arrasateko esperientzia oso erakargarria da. Arrakasta ekonomikoa eta etikoren balore konbinaketa dakusate Arrasa-

du. Oso antolaketa demokratikoa lantegia txikia den bitartean, baina enpresa handitzean ez hainbeste. Enpresa indartzean, akzioen balioa gehitu egiten da eta enpresek akziorik gabeko langileak kontratatzeo joera dute. Kooperatiba sistemaren desintegrazioa ematen da.

Konbentzitu gara, bestalde, isolatutako langile kooperatiba batek, epe luzera arrakasta aukera gutxi duela. Oso garrantzitsua da Arrasaten sortu duten estaldura eta eus-

eta komunikazio prozesu berriak eta arazoek ikerketarako talde berriak antolatu behar izan dituzte. Gure ustez oso garrantzitsua da, taldeko liderak aldaketak sarizke izan duten trebetasuna.

Historian zehar, zerbait berria egiteko asmoa izan duten talde ugari izan da. Talde hauek dogmatismo handia izan dute eta ezin izaten da erakundearen printzipioak aldatu. Arrasateko kooperatiba taldean hasiera hasieratik malgutasun handia egon da. Behar bada, Don Jose M^aak hasieratik ikusi zuelako etorkizunari aurre egin behar zitzaioela eta egitura eta lanaren antolaketa alda zitekeela.

— Zure ustez, Don Jose M^a ezinbestekoa da kooperatiba mugimenduan?

— Ezin esan daiteke Don Jose M^a egongo ez balitz horrelako mugimendurik egongo ez zatekeenik.

Edozein modutan ere, ezin ahaz dezakegu 1976. urtean hil zela. Hamalau urte pasa dira eta haren heriotzaren ondoren dinamismo handia ikusi dugu taldean. Bera bizi zenean zein gaur egun, dinamismo bera ikusi dugu taldean.

“Isolatutako langile kooperatiba batek epe luzera arrakasta aukera gutxi du”

ten. Hori oso hunkigarria da.

— Nola azaltzen duzu Kooperatibek Arrasaten arrakasta izatea eta ez beste leku batzuetan.

— Kontutan izan behar da enpresaren kontrola, bazkideek daukatela eta ez akziodunek.

EEBBetan nahiz beste estatu batzuetan, produkzio kooperatibak egin nahi izan dituztenek, akzioetan oinarritu izan dute enpresa. Langile bakoitzak akzio bat erosten

karri sistema. Eskola Politeknikoak kooperatibek izan duten hazkundera erantzun dio, kooperatiba taldeak osatu dituzte... Gure ustez, kooperatibek izan dituztan “asmakizun sozialak” oso garrantzitsuak dira, taldearen arrakastari lagundu diote.

— Nola eragin die kooperatibei beren garapenak?

— Hazkundera kooperatiben gobernagarritasuna oso zaildu du. Lider eta bazkideek, kontrol sistema, egitura

Denboraldi bukaera gertu

Denetarik eskaini dute gure taldeek aurtengoan

1989-90 denboraldiari amaiera eman zioten lehenak Rugby taldeko mutilak izan bagenituen, gutxika-gutxika heltzen ari zaie ordua beste askotxori ere.

Egiaren orduan, beraz, egokia iruditu zaigu balantzea egitea, azken boladan bakoitzak zer eskaini duen jakiteko.

Rugbyan, mailari eutsi

Istiluz jositako denboraldi bukararen ondoren (gogoratu Bizkaian jokaturako neurketetan egundokoak eta bi jasan zituztela gure jokalariek), azkenean Federazioak talde bi soilik jaitsiko zirela erabaki zuen. Horri esker, gure jokalariek ez dute mailari eusteko promoziorik jokatu behariko. Datorren denboraldian, beraz, aurreko estrainatu berri duten Euskal ligan segituko dute.

Futbolean, hala nola

Zaila da Mondrak eskaini duen denboraldia nolabait kalifikatzea. Gure taldea ez da ondo ibili, ez eta txarto ere.

Liga amaitzeko bost ihardunaldi besterik falta ez direnean, eta pasa zen igandean lortutako garaipenaren ondoren, Mondra sailkapeneko hamargarren postuan aurkitzen dugu, 34 puntuz, positibo eta negatiborik barik.

36 gol lortu dituzte, eta 25 jaso. Denboraldiko gauza aipagarriena, Gordobil edo Urretxu bezalako gazteek hirugarren mailan lortu duten esperientzia.



Eskubaloitza Taldearentzat, hil ala biziko neurketa larunbatean

Saskibaloian, tamalez, behera

Lehenengo fasea era kaxkarrean burutu ondoren, Arrasate Kirolak taldea bigarren mailari eusteko A-2an murgildu ziren. Zortzi talde elkarren kontra, eta salbazioaren bidean, hiru postu besterik ez.

Balzategiren mutilek lan bikaina burutu dute etxeko neurketetan; kanpokoetan, ostera, makal baino makalago aritu dira.

Pena, zeren zortzi horien artean laugarren gelditu eta gero, seguraski mailaz jeitsiko dira eta.

Hori hala gertatzen bada, lanari eutsi eta ea lehenbailehen itzultzen diren merezi duten tokira.

Eskubaloian, lan aparta

Denboraldi benetan bikaina ari

dira burutzen Arrasate Kirolak eskubaloitza taldeko jokalariek.

Dena den, liga amaitzeko hiru ihardunaldi besterik falta ez direnean, gure mutilak igoserako promozioaren helburua galtzeko arriskutan daude.

Beasainen 22 eta 29 irabazi ondoren, gaur egun sailkapeneko laugarren postuan daude; hori bai, aurreko bi taldeekin puntuz berdinduta.


Gogoratu azkenean bi lehenek jokaturako dutela promozioa. Asmo hori betetzeko, larunbatean hil ala biziko partidua jokatu behariko dute Musakolan, Bilboko Loiola taldearen kontra.

Hurbilduko ote dira zaletuak gure jokalariek merezi duten animoak ematera?

**E D E L
TAPIZTEGIA**

*Gortina
Alfonbra
Koltza*

Bidekruzeta 14, Tfnoa: 76 16 25
BERGARA



GAZTEEN MODA! Bizkaia Etorbidea 1, Etxabea. Tfnoa: 77 14 24

podiuma

Beatriz Jimenez, paretan gora ibiltzeari errespetua galtzen zaionean

Hogeitasei urteko arrasatear honen berezitasuna ez omen da eskalatzailea izatea, emakume izanda kontu horietan sartua egotea baizik. "Mutirik bai, asko ibiltzen dira; baina nik dakidala behintzat, inguruetan neska gutxi. Bi edo hiru. Akaso egongo dira gehiago, baina ez ditut ezagutzen".

Nolatan heldu zen halako mundu batera. "Orain bost urte hasi nintzen. Mutilarekin joan, baina hasieran begira gelditu, ohi nintzen beldurragatik edo. Begira egoteaz aspertu, eta azkenean proba egin nuen".

Auskalo zergatik ibiltzen diren pareta zulatueta gora eta behera. "Ez dakit; sarritan beldurra pasatzen den, baina alde batetik naturarekin harremanetan egotea, eta bestetik zure meta eta helburuak gaindituz zoazela ikustea...".

Araotzera hurbiltzen da lagun taldea asteburuetan, ezaguna duten tokira. "Hori bai, hiruzpalau egun libre ditugunean horiik zehar joaten gara. Udan Frantzia egon ginen, Berdon-en; ikaragarria zen hura! Astesantuetan ere Kataluniara joan gara, Montserratera. Bestela, beti Araotzen".

Jende askok pentsatu ohi du kirol arriskutsua dela eskalada. Beatrizek ez du hori uste. "Neri, bost urteko esperientziaren ondoren, segurua dela iruditzen zait".

Lehiaketa mailan ez omen dago



mundu honetan bizitasun handirik. "Oso konpetizio gutxi antolatzen dira, eta antolatzen diren gehienak rokdromoetan egiten dituzte. Aire zabalean, ia ezer ez".

Izan ere, badago diferentzia mendi zabaleko paretetan aritu eta Rokodromoan ibiltzearen artean. "Ezin dira konparatu ere egin. Rokodromoa ondo dago entrenatzeko, edo eguraldiak laguntzen ez duenerako. Bestela, eguraldi onaz naturaren erdian egotea. Hori da benetan merezi duena!".

Eskalatzaileek inolako dirulaguntzarik jasotzen ez duten arren, xoxa gutxi behar dira ekipoa lortzeko. "20.000 ptako soka, eta 7.000 ptako arnasa; bestela, aldean daramazun arropa, eta noski, gorantz egiten duen horma".

Zergatik gomendatuko lioke norbaiti bertara hurbiltze. "Ez dakit, ni behintzat hain lasai gelditzen naiz bukatu eta gero, hain gustora, egunero hobetuz zoazela ikusita. Bertan sartua egon beharra dago modalitate honen aberastasuna ulertzeko".

Igerilariak bikain

Iruñean izan genituen igandean Arrasate Igeri taldeko neska-mutirik, komunitate autonomoen arteko txapelketa batean parte hartzeko. Benjamin, alebin eta haur mailatan antolatutako probatan, gure igerilariak 33 domina lortu zituzten.

Emakumezkoetan irabazle, eta gizonezkoetan laugarren postua eskuratu zuten. Guztira, sailkapeneko hirugarren postua Arrasate Igeri taldearentzat.

Iñigo Roldan ederto

Ez da txantxetakoia Lagun Aro-Dorleta taldeko Iñigo Roldan atxalbaltarra burutzen ari den denboraldia. Getxoko ziklo kross mundiale-tan Espainiako gazte selekzioarekin korritu bazuen, errepideko probak hasi zirenetik ondo baino hobeto dabil.

Hainbat karreratan nagusitu eta gero (Uzarragako igoeran, Deban, etab.), asteburuean Zarautzen korritutako txapelketan bigarren postua eskuratu zuen, Oskar Ortiz irabazlearengandik segundu gutxira.

Zorionak, Iñigo, eta eutsi goiari!

Alpinismo ikastaroa

Besaide Mendizale Elkartearen eskutik, maiatzaren 5-6, eta 12-13an aurrera eramango dena.

Telera mendikatean eta Vignemalen izango da, hastapen eta hobekuntza mailak landuko direlarik. Izen emateko (Elkartearen egoitzan), beharrezkoa izango da mendi federatu txartela edukitzea, atzerriko suplementua ere nahita nahiezkoa delarik..

MONTTE[®], S.L.

Montte S.L.k Arrasaten duen dendarako

neska administrari-saltzailea behar du.

Beharrezkoa: Lanbide heziketa eta euskara.

Interesatuak, maiatzaren bosta baino lehen, jo hona: MONTTE S.L. UDALA PLAZA z/g

(Ekarri Curriculum-a eskuz idatzita)

I. Hastapenak

Ez naiz nekrofiliaren oso zalea, baina kasu honetan zenduak nire belaunaldikoengan izan zuen eraginak eta belaunaldi gazteagoentzako ezezagunegia deneko usteak salbuespena egitera bultzatu naute. Gaur hasi eta hurrengo asteetan, Euskal Kanta Berriaren oinarria den *Ez Dok Amairu* taldeari buruzko hainbat xehetasun aipatu nahi nuke.

Taldearen sorrera ofiziala 65ean kokatzen da. Ordurarteko euskal musika molde jakinetara mugatua zegoen: musika sinfonikoa, kantutegiak eta koruak, bertsolaritza eta txistuz, dultzainaz edo albokaz jotzen zen herri musika. Hortik aparte, euskal musika ez zen euskal musika. Mende bat lehenago Iparragirrek kitarrak lagundurik egin zituen kantak ondo kostata egin zituen bereak euskaldungoak, baina urretxuarrak ez zuen jarraitzailerik izan. Ehun urte beran-

duago oraindik entzun beharko zen kitarrak kantatzea ez zela euskalduna.....

Hirurogeigarren hamarkadaren hasieran Mitxel Labegeriek apurtuko du lehen hesia. Lebejerie ipar euskalduna, lehen Iparragirre bezala, basamortuan jaiotako lore bakana da, baina oraingoan giroa aproposa da eta hazia ez da alferrik galduko. Hego Euskal Herria gerra osteko lozorrotik esnatzen hasia da eta Labegeriren bi disko txikiek, ezkutu zabalduko diren arren, sekulako arrakasta izango dute euskal gazteriarengan.

Mundu zabalean ere, 60. hamarkadak aldakuntza giroa dakar. Musikari dagokionez, Beatles eta Dylan aintzindari direlarik, molde berriak etengabe sortzen dira. Musika fenomeno masibo izatera iristen da eta musikaren bidez mundu osoko gaz-

teengana iristen dira ideia berriak. Frankismoaren isolamendua hertsia izan arren, zirriztuetatik sartzen den haize berri horrek gogor astinduko ditu euskal gazteen hegoak.

Catalunyatik zehar iritsiko da Euskal Herrira eragin hori. Han, *Els Setze Jutges* izeneko taldea - Raimon, Pi de la Serra, Llach..- "*Nova Cançó*" mugimenduaren oinarriak jartzen hasia da eta oihartzuna Mikel Laboaren belarrietara iritsi da, Zaragozan mediku ikasten ari dela. Laboak orduan Atahualpa Yupankiren kantuak gaztekeraz kantatzen zituen, baina katalandarren esperientzia ezagutzean, euskaraz antzeko zerbait egin asmoz mugitzen hasi zen. Han-hemenka bakarlanean zebilen jendeari deitu eta hor hasi ziren bileretara agertzen Benito Lertxundi, Lurdes Iriondo, Joxean Artze, Xabier Lete...

Mikel Irizar

AE ELKORO

AE

Magdalena 29-31,
Tfnak: 79 18 86 - 79 45 99
ARRASATE

**TB
HIFI
VIDEO-CLUB
ZERBITZU TEKNIKO**

**BLAUPUNKT
PANASONIC
PHILIPS
HITACHI
MITSUBISHI
SONY**

AE


Garibai 10,

**ETXEKO TRESNAK
ARGITEGIA**



**SATELITE BIDEZKO TB
TELEBANAKETA**


DICCIONARIO DE AUTORIDADES DEL EUSKERA



la 2.000 urte iragan behar izan dira Euskal Herriko historia irautiliko duen hiztegia eduki ahal izateko. Zeren eta, zer gertatuko litzaloke Euskarari Hiztegi hau gabe... Eta zer Euskal Herriari Euskararik gabe?

- 9 liburuzki dotore eta, aldi berean, erabilerrazak.
- Marmot berde koloreko zuntzar-luzuko azalak, 24 kilatetako urez sultan eginak estianpazioekin.
- Landare-hariz jositako pleguak.
- Paper sendoa pixka-pixka bat hezur kolorekoa.
- Fotokorposizioa bi zutabetan egin, tipografia eder eta argiaz eta lau letra-mota ezberdinez testua hobeto irakurri eta ulertu ahal izateko.
- Euskarari buruz sekula egin den lanik handiena, euskal dialektologian aditunik jakintsuenak direnek zuzendua.
- Behar beharrezko lana euskararen azterketarako.

DICCIONARIO AMAIA DE AUTORIDADES DEL EUSKERA



Euskara ikasteko erabili beharreko obra

OBRA BEREHALA JASO NAHI BADUZU, DEITU 94 - 445 46 89 Tfnora. (ARANTZA)

Ernesto Amaia Argitaletxea

Paseo Campo Volatin 24, 4. D-3 48007 BILBO

Tfnoak: 94-445 46 89 eta 446 69 93

Euskara eta alderdi juridiko-legala

Herri bizitzan eta eskoletan Euskara murriztu nahiz debekatu egiten duten faktore juridiko-legalak garrantzi handikoak dira. Hauek arautzen bait dute gizartea. Felipe V. arekin, Dinastia aldaketarekin (1700), "Nazioaren hizkuntza bakarria Gaztelania da" delako politika martxan jartzen da, Foruak galtzean politika hau gogortu egiten delarik. Ondorioz, gaztelania ez den hizkuntzentzat ez da egon lekurik espainiar nazioan.

Urteetan zehar emandako hainbat eta hainbat Dekretu edo Lege, zein baino zein gogorragoa, zapalkuntza linguistikoaren lekuko bikainak dira. Guk, hemen batzuk baino ez ditugu aipatuko:

— 1902-11-21eko errege-Dekretua. 2. kapitulua: "Kristau dotrina edo beste edozein gai gaztelania ez den beste hizkuntza edo dialekto batean irakasten duen maisu, maistra... Inspektore Probintzialak zigortua izango da, ministraritzari gertatuaren berri emango diolarik. Bigarren aldiz errepikatuko balitz, maitzatik bota egingo da, legeak ematen

zizkion eskubide guztiak galdu egingo dituelarik.

— 1923-9-18ko Errege-Dekretua: "Nazioarteko nahiz nazio-ekintza ofizialean pertsona agintedunek ezin erabiliko dute gaztelania ez den beste hizkuntzarik; hau bait da Estatu Espainolaren hizkuntza ofizial, eta erregistro ofizialeko liburuak aktak eta mezu eta izkribuak, agintariei zuzenduak ez direnak ere, gaztelaniaz idaztera beharturik daude (...)"

— 1931-12-9ko Konstituzioko 4. artikulua zera dio probintzietako hizkuntzei buruz: "Gaztelania da Errepublikako hizkuntza ofiziala (...), inori ere ez zaio eskatuko hizkuntza erregionalik hitzegitea". Eta 5. artikulua: "Derrigorrezkoa da gaztelania ikastea eta gaztelania erabiliko dute herrialde autonomoetako irakaskuntzan".

Gero eta Lege gogorragoak

Militarrek, Errepublika armaz indar-gabetu ondoren, frankismoa ezartzen

dute. Frankismoarentzat Espainiako beste hizkuntzak eta dialektoak Nazioaren kantzerra dira. Eta kantzerrari egiten zaion bezalaxe euskara errotik desagertarazten ahalegintzen da.

"Idioma uno en la España una" lemapean euskaraz hitzegitea zeharo debekatzear gain, euskaraz zegoen inskripzioa, izen komertziala..., baita hilerrietako inskripzioak ere, erdaraz jartzeko agindu zehatza da. Ikus pare bat Dekretu:

— 1940-5-16koa: "Debekaturik dago marka komertzial, etxe errotulu eta propietate industrialei gaztelania ez den beste hizkuntzetako izenik jartzea".

— 1945-1-11koa: "Merkataluntziei gaztelaniazkoak ez diren unti izenak jartzea zeharo debekaturik dago".


Bukatzeko, Etxaideren hitz hauek gogoratuko ditugu:

"Frankismoak Euskalerriarekin egin duen jenojidioa, gaurko belaunaldikoak ondotoxo konturatzen ez diren modukoa izan zen".

J. Etxaide

Atalataikoan

"Gazteak gazteen ikuspuntutik"



ARGAZKI-LEHIAKETA

SARIAK

1. 50.000 pta.
2. 30.000 pta.
3. 20.000 pta.

LANAK AURKEZTEKO EPEA

maiatzaren 2tik uztailaren 5era

OINARRI ARAUAK

Udalako Gazte Zerbitzuan jaso daitezke
(Tfnoa: 70 09 00)

ANTOLATZAILEA



Nerabeak, tabakoa eta osasuna

Aurreko asteetan gure gizartean dagoen erretzaileen portzentaia ikusi dugu, bai nerabeen artean, bai helduen artean. Tabakoak osasunean duen eragina ikaragarria da, eta asko erretzen denean, zerikusia handia duela esan genezake gure gizarteko hilkortasunarekin: gaitz kardiobaskular, minbizi eta amas-apatuko gaixotasun kronikoetan, batez ere. Tabakoaren kontsumoa, egunean 6 zigarrotxotik gorakoa denean, lehenengo mailako arrisku-faktorea da arteriosklerosia sortzeko: infartoa, bularreko angina, bapateko heriotza eta gorputzadarretako arteriosklerosia maizago agertzen dira erretzaileen artean eta gehitu egiten da maiztasun hau, zigarroen kontsumoa handitzen den neurrian. Guzti honek duen garrantzia nabarmena da, batez ere gorputzadarretako arteriosklerosi kasuetan; zeren, erretzen ez

jarraitzeak gaixotasunaren aurrerapena geldieraztea suposa lezake eta, dudarik gabe, sintoma guztien hobekuntza, batzuetan sintoma guztiak desagertzen direlarik.

Tabakoak minbizia guztien %30arekin badu zerikusia, dietarekin batera, honek %35 kasuen nolabaiteko errua bait du, minbiziaren sortzaileen zerrendan buru dagoelarik.

Biriketako, laringeko, ezpainetako eta ahoko minbiziak erlazio estua du tabakoarekin. Tabakoa eta alkoholaren kontsumoa elkartzen direnean, arriskutsuagoa izaten da minbiziari dagokionez.

Bronkitis kronikoarekin ere badu erlaziorik; eztula eta espektoriaza ditu bere ezaugarriak. Gizonezko populazio helduan ukituaren portzentaia handia da; Lagun Aroko enpresako medikuntza zerbitzuan eginda-

ko lanetan agertzen denez, gure inguruan gizon helduen artean %6 dira gaitza jasaten dutenak, erretzeko ohitura ez dutenen artean; eta erretzaileen artean, berriz, 4 aldiz gehiago, beraz, %24raino iristen da. Eta lanean prokutu kutsatzaileekin aritzen direnean, afektatuaren kopurua bikoiztu egiten da.

Horrela bada, eta laburtuz, esan genezake arrazoi sendoak daudela tabakoa baztertzeko edo, erretzen bada, neurri mugatu batetik ez pasatzeko.

Hala eta guztiz ere, hobe da erretzen ez jarraitzea.

Baina erretzailea bazara, saia zaitetz ohitura hori galtzen, edo gutxienez 5-6 zigarrotxo baino gehiago ez erretzen.

Neurri honetatik gora arriskua progresiboki handitzen bait da.

*Eukeni Olabarrieta
Arantxa Lizaso*

✓ Au pair in America

Hamazortzi eta hogietabost urte bitartean, gida-baimena eta haurrak zaintzeko esperientzia praktikoa badituzu, eta EEBBetan urtebete pasatzeko prest baldin bazaude, guk zera eskaintzen dizugu:

- U.S.A.ra joan eta etortzeko hegalaldia doan
- 100 \$ asteen.
- 4 egunetako prestakuntza ikastaroa New Yorken.
- Ikasteko aukerak.
- Aseguru medikua.
- Gure bertako kontseilariarekin laguntza urtean zehar.

Baditugu familiak: Dublin eta Galwayn, Irlanda Colchester eta Ingalaterran.

- Egonaldi hauek 3 hilabetetakoak izan daitezke.
- Gida baimena ez da beharrezkoa.
- Ingeles klaseak egonaldian zehar.


Informazio gehiago

Parlance Arrasate Olarte kalea 6, Arrasate
Tfnoa: 77 06 83 (11.00-13.00 eta 15.00-17.00)



Denbora txarrari aurpegi ona

Bistan da eguraldia inoiz ez dela nork berea aukeratzen duen modukoa. Jasaten ari garen sikute latz honek sarri zerura begira erazi badigu ere, apirilean daramagun zorionezko denbora honek ere eragin berdina sortu digu mendizaleoi gure oporraldiak hurbiltzen ziren neurrian. Herri mailan hainbat ziren mendiaz zerikusirik zuten planak, abiapuntuak Zuriza (Anso Bailaran), Garvaine, Tena bailara eta Belagua ziren batipat. Helburuak asko ziren: Hiru Erregeen Mahaia, Petretxema eta Atxerito, Zurizan, Swan eta Perdiko iparraldeko bidetik Garvainen, Balaitus eta Infernos Tena Bailaran eta Auñamendi, La Kartxela eta juergia Belaguan. Gehienok asmorik gogorrenak eraman izanagatik, ez zitzaigun goiko zerua guk nahi bezala portatu eta



askoren planak bertan behera jausi ziren.

Hau gertatuta eta etxera bueltan behar zena baino lehenago agertzetik inork ez zuenez nahi, denok gelditu ziren aurretik pentsatutako lekuan denbora erarik egokienean pasatu asmoz.

Araze honen gurrean ezberdinak izan ziren gure Hankamotz honen protagonistek emandako erantzunak.

Talde bik bederen pioleta eta granpoiak alde batera utzi eta eskiko taulak eta bastoiak jantzi zituzten. Ez da ideia txarra.

Beste talde batek Pirineose-tako herriska batetara jaitsi eta bizi modu lasaia egitea pentsatu zuten.

Baina bazen talde bat, hogei-tik gorakoa, bizi modu lasaia egiteko inongo herriskatara jaisterik behar ez zuena. Mendi barreneko aterpea lekunik egokiena iruditu zitzaaien beste zaletasun batzuk garatzeko, jatea eta edatea alegia.

Beraz, ez zaigu zaila gertatuko Arrasaten, Aste Santuetan mendira joan den hainbat gizenduta ikustetik.

Zuk zeuk aukeratu zer egingo zenukeen egoera berebean.

Hankamotz

FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN

ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA

**I
R
A
T
I**

Ferrerias kalea
Tfnoa: 79 71 80

ORTZI
erretegia

Angiozar auzoa
Tfnoa: 76 22 68
BERGARA

PAZI-OLA SA

Zaldizpe kalea, 2
Tfnoa 79 29 91
ARRASATE



MARENAZA

Altzariak
Diseinua
Apainketa

Bizkai 1, Tfnoa: 79 08 07
ARETXABALETA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA ZURE ZERBITZURAKO



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Guipúzcoa



Aste gazte

"Gazteentzako enpleguaren gida" argitalpenaren ale batzuk jaso ditugu Udaleko Gazte Zerbitzuan. Interesa izanez gero, eman diezazukegu ale bat (agortu arte).

Bekak

Lan-ihardunaldiak

• Estatu espainolean antolatuta-ko Lan-Ihardunaldietan parte hartzeko izenak emateko epea maiatzaren 7an zabalduko da. Interesatuak eme egon.

Lehiaketak

• "Gazteak gazteen ikuspegitik" Argazki Lehiaketa. Zuri-beltz nahiz koloretan. Sariak: 1.-50.000, 2.-30.000 eta 3.-20.000 pta. Arrasateko Udalak antolatuta. Lanak aur-

kezteko epea: uztailaren 5a baino lehen.

• *Lekeitioko XIV. Zinema eta Bideo Lehiaketa.* 3 sail: euskal zinea, euskal bideoa eta zine-gidoi lehiaketa. Pelikulak eta bideoak aurkezteko epea: maiatza 13. Gidoiak aurkezteko epea: abuztuaren 26a baino lehen.

• *"Barcarola" Nazioarteko Poesia eta Ipuin Lehiaketa.* Gai librea. Gaztelaniaz. Sariak: 300.000 (poesia), 175.000 eta 50.000 pta. bi akzesit (ipuin). Lanak aurkezteko epea: maiatzaren 19a baino lehen.

• *Palencia antzerki-saria* (gidoigileentzat). Gai librea. Gaztelianaz. Saria: 500.000 pta. Lanak aurkezteko epea: 90-6-30.

• *"Jauja" ipuin lehiaketa.* Gaztelianaz. Saria: 500.000 pta. Lanak aurkezteko epea: 90-9-12.

Erakusketa


• Komikiaren panorama Euskadin. Monterronen. Maiatzaren 3tik 15era.

• 1990-90 ikasturtean zehar, honako arlo hauetan ikasketak egiteko bekak: altzarigintza, zoladura eta zeramikazko gaineztadurak, jolasgintza, janzkera, larrugintza eta bisuteria. Europako Ekonomi Elkarteko herrietan. Gehienez, 1.600.000 pezetako laguntza. Epea: 90-6-1.

• Goian aipatutako alorretan ikasketak sakontzeko edo arlo hauei buruzko ikastaroetara joateko bidai-laguntzak. Egonaldi laburretarako (25 eta 90 egun bitartekoak). Gehienez, 700.000 pezetako laguntza. Epea: ikastaroa hasi baino 3 hilabete lehenago.

• Euskal kirolariak prestatu eta proiektatzeko bekak eta laguntzak. Gehienez, 1.300.000 pta. Kirol modalitate jakin batean traiektoria ezaguna eta frogatua izan eta federatuak dauden euskal kirolariak. Epea: 90-5-31. (E.H.A.A. 90-3-15).


Informazio gehiago:
Gazte Zerbitzuan, ☎ 79 09 00



EGIDO Ordezko Piezak

Automobilerako ordezko piezak

Legarre Pabilola. Tfnoa: 79 62 11



Fotokopiak
Enkuadernazioak
Planen erreproduzioa

Ferrerías, 23 Offsets
ARRASATE Tfnoa: 79 46 62

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI
BADUZU EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....

HELBIDEA.....

HERRIA.....

Azoka kalea 1, ARRASATE Tfnoa: 77 08 15



**OSO GAUZA
BEREZIAK**

Zerkaosteta 8

ETXEBIZITZAK

- Neska behar da Donostian pisua konpartitzeko. Tfnoa: 76 43 74 (arratsaldeko ordubietan)
- Ikasleak Donostian pisua konpartitu nahiko luke. Tfnoa: 27 86 84. Astegunetan arratsaldez.
- Zigarrolan pisua erosiko nuke. Interesatuak deitu 79 62 89 tfnora.
- Errentan erdialdean pisua osatzeko pertsona behar da. Gela izango luke. Tfnoa: 79 51 49 eguerdian edo gaueko 11etatik aurrera.
- San Andresen garajea alokatu edo erosi nuke. Jabier 79 50 53
- Bikoteak errentan hartzeko teilatupe edo pisu txikiren bat nahi genuke. Tfnoa: 79 81 76
- Aramaio kalea 4, etxabea etxebizitza salgai. Deitu 795521 tfnora.
- San Andresen etxebizitza salgai. Errebuelta kalea 8-3.D. Telefonoa 79 97 18.
- Konpartitzeko pisu bila. Deitu 79 39 00 tfnora, gaueko 10etatik aurrera, edo (948) 24 31 95 tfnora edozein ordutan. Blankaz galdetu (ATS).
- Errentan pisu txikiren bat edo teilatupea hartuko genuke bikote batek. Ez digu axola hutsik bada ere. Tfnoa: 79 81 76
- Bi oheko logela eskaintzen da. Tfnoa: 79 07 73
- Bikote batek teilatupea edo pisu txikiren bat hartuko luke. Hutsik balego hobeto. Tfnoa: 79 96 90.

LANA

- Emakume euskaldunak umeak zaindu edo etxeko lanak egingo lituzke. Tfnoa: 79 07 73.
- Bi emakume euskaldun behar dira asteburuetan erretegi batean lana egingo. Deitu tfno honetara: 76 22 68
- Emakume gazte eta arduraduna lanerako prest. Tfnoa: 79 77 36
- Etxeko lanak egin eta haurrak zainduko nituzke. Tfnoa: 79 73 83
- Edozein lan egingo nuke. Tabernan, jattetxean, haurrak zaindu... Dei 79 15 35 telefonora.
- Pertsona euskalduna behar da ikaste-txeretan eta etxez-etxe bideoak saltzeko. Baldintza interesgarriak. Interesatuak deitu 79 54 46 telefonora.
- Sukaldeko lanak egingo nituzke. Dei 79 43 93 telefonora
- Kontabilitateko klase partikularrik emateko pertsona behar da. Dei 9etatik aurrera 79 99 82 tfnora. Miren.
- OHoko 7. mailako neskatilari klaseak emateko pertsona behar da. Egunean ordu betez. Tfnoa: 79 83 68. Kati.
- 26 urteko neska etxeko lanak egingo lituzke, orduka, bai goizez eta bai arratsaldez. Tfnoa: 77 04 97 Nati.
- Esperientzia duen neska etxeko lanak egingo lituzke. Tfnoa: 79 97 58
- 19 urteko neska euskalduna prest etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Interesatuak dei tfno honetara: 79 54 79.
- Neska euskaldunak etxeko lanak egin eta haurrak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 21 09. Gaez.
- Latin klaseak ematen ditut. Interesatuak 79 50 88 Tfnoa. deitu. Garbiñe.

SALEROSKETAK

- Bi markako SONOR soporte platerak, Bateriazko aukia eta paiste 3000 Rude markako platerak saltzen dut. Gutxi erabiltza daude. Telefonoa: 79 91 59 Xabier (eguerdiko 1etatik 2etara)
- R-5 GTL kotxea saltzen dut. SS-M aluminiozko llantak. Beltza. Zapaia solarra. Telefonoa: 79 91 59. (Eguerdiko 1etatik 2etara)
- PC erostegatik Toshiba ITX-10 ordenadore salgai, 64 k. Baita ere Sanyo SLIM-3 magnetofonia, 2 Yoystich eta hainbat joku. Guztira: 20.000 pzta. Tfnoa: 78 15 86.
- Liburu bilduma salgai. 1952tik 1987ra bitarteko Planeta sariak eta 1969tik 1987ra bitarteko Ateneo sariak. Egoera onean. Tfnoa: 79 15 96
- Yamaha XJ 650, BI-AC kilometro gutxik eta merkea salgai. Tfnoa: 79 36 65 Miguel Angel.
- R-12 TS autoa salgai. Interesatuak 79 33 43 Tfnoa. deitu, arratsaldeko 8.00etatik aurrera.

DENETARIK

- Otsailaren 14ean monopatina galdun Santa Barbara inguruan. "Punk Smile" idatzia du atzekaldean. Mesedez, ikusi baduzu dei 79 95 71 telefonora (Josu)

ARRASATEN HILDAKOAK

Macuso Etxarte, Rafael.
83 urte. Apirilaren 19an.

Maidagan Elgoro Teofila.
85 urte. Apirilaren 19an.

Urdangarain Salaberria Adela Agueda.
92 urte. Apirilaren 19an.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE

Tfnoa: 77 08 15

Famauen ahotik

Paulo Garai; 76tik aurrera Gipuzkuako Aransgi-ko presidente (II)



76xen Gipuzkuako presidente

Bergako presidente nitzela juntako ninguen Donostien eta ba, 76xen, neu nonbrau ninduen Gipuzkuako presidente. Lokal eskasak gauken orduen eta, hamabi milloiko kreditue eskatu obretarako eta Frantzia kalien hiru pisoko lokala hartu gauen errentan. Kredituorren abala, andra ta guzti firmetie esijiruten auien eta hartan fan gitzenien esan nutzen andriei: "Hortik ez dozu dibidendoik hartuko, baiñe, egunen baten hemendik fatie toketan bajatzu, abalik onena, horixe izengo da seguramente".

Seguridade Sozialeko dirue

Seguridade Sozialetik, ume bako-
txeko hillien, hiru mille pezeta konsegi-
ru gittuen. Geruau, lau mille pezeta
eskatu gittuen eta Madriletik dana
denegau, ez aumentoik eta ez besteik.

Orduen, gobernadoriana fan gitzen
eta esan euzkun, "En este asunto, yo no
puedo hacer nada". Orduen esan
nutzen, "Como tengo que hablar con el
señor gobernador de usted o de tú". Eta
harek "de tú"

"Bueno pues te voy a demostrar que

puedes hacer mucho. Yo he venido de Mondragón a rogarte que nos soluciones esta papeleta y eso sin tener gracias a Dios, problemas de este tipo en la familia. ¿Tú ya tienes este problema en la familia?", eta berak, "pues no" orduen esan nutzen, "Entonces no crees tú que cualquiera que como tú y yo ha tenido esa gran suerte, por poca categoría que tenga, puede hacer algo por los que no han tenido esa suerte. Yo ahora me siento padre de ciento y pico de niños y te digo que tú puedes hacer mucho".

Zutittu eta esan euzten; "Te felicito Garai tu sigue por ese camino".

Hurrengo egunien sekretaixiek deituzten, asuntuoi konpondute auela esanaz.

67tik hona asko eindda

67xen lehenengo zentru zabaldu zanetik asko eindda. 74en "Como centros de utilidad pública", rekonozirutie konsegiro zan. 85ien intregraziñorako xei zentro formau zien Donostien. 88xen Euskal Gobernutik hiru milloiko suztatu sarixe jaso zan. Gaur egun umetan be, orduen baiño hiru, lau bider gehixau dauko zentro bakotxak. Eta anbulatorixoko konsultak, diagnosti-
kuek, rebisiñuek eta halako zerbitzuek be asko eiten die.

Neuk 82xen ero itxi nutzen, lau urte Gipuzkuako presedente eñ eta 61 urtekin, horrenbeste bieje eta zera, lartxobe bazan eta.

Estepan Plazaola eta Jexusmari Garai

Zelebrequerixak

Eibarko pelukerixa batera itxura bareko gizon argal bat sartu zan. Azurra eta azala agiri jakon bakarrik. Sillan jarri zanian esan zotsan pelukeruai:

- Arreglaidak kokote hau.

- Hori hemen ez. Okerreko lekura etorri haiz. Joan hari apopillo Txal-txa-neko tabernara. Hango txuletak arreglatzekua dok hori.

Plazentziako kale baten lurrera jausittako zaldi bat jaso ezinik zebillen gizon pilla bat. Hartan ziharduela han agertu zan tute-jokuan aparta zan Itturbe eta begira begira geldittu zan esanaz:

- Tira mutillak, gizurra jirudik hainbeste gizonen artian zaldi morkordo bat jaso ezinda ibiltzia. Hainbeste koplá barik hamaika zaldi jaso juat nere denporan.

- Zela? -preguntau zotsen.

- Batekuakin.

Erregen aurretuxa zan. Umia arrantza baten negarrez zeuan eta amak, ixiltze aldera:

- Ixildu zaittez. Ume negartixei erregiak eztotse andereik (panpinik) ekartzen eta negarrez jarraitzen badozu ezte pasauko erregiak.

- Eztotsa ardura. Maistriak esan eban erregiak pasau arte eskolara ez joateko, eta pasatzen ezpadie, eskolara joan biharrik ez.

Juan Martin Elexpuru

Lua

gozokiak

Erdiko kale 8,
Tfnoa: 79 66 75 ARRASATE

ALTUNA
FRUITATEGIA
Kalealdea 11n
eta Merkatuan
Tfnoa: 79 90 75 ARRASATE

Eslu
ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88
Arrasate



Amaiur batailioiko Arrasate Laguntaldea, Asturiasen. 1937

Gerra zibila hasita zegoen eta Francoren tropak hasieran baino indartsuago ari ziren aurrera egiten. Frentea Santa Ageda, Elgeta eta inguruetan zegoenean, Kalamuan, Bizkargin, Solluben, Artxandan eta Aramaixo aldean burukatu ziren Amaiur batailioiko mutilak Asturiasera bidali zituzten errepublikarrek egin beharreko erasoan parte hartzera.

Asturias partean hilabete inguru eman zuten. Han, Saseta, Eusko

Gudalosteko komandantea hil zuten. Hilabetearen ondoren, Bilbora ekarri zituzten Aberri Egunerako. Han, Carlton hotelaren aurrean-orduan Eusko Jaurlaritzaren egoitza-desfilatu zuten.

Argazkikoak Amaiur batailioiko Arrasate Lagun Taldea duzue, mondragoetarrez osatua. Goitik hasita ezkerretik eskuinerantz, Eduardo Urrutia, "Saburdi", Alberto Arabaolaza, "Itsasondo", Felipe Barrutiabengoa eta Sabin Garai "Zeleta".

Bigarren lerroan, ezkerretik

hasita, Esteban Zaitegi, Juan Axpe, Anbrosio Leibar, Jose Mari Gallastegi, Angel Arana, "Porru", Felix Azkoaga, "Txibi" La Voz de Guipuzcoako korrespontsala, Ignacio Olazabal eta Jose Barrutiabengoa.

Belauniko ezkerretik, Luis Barrutiabengoa, Sabin Iturriaga, Julian Leibar, Telesforo Galdos, Leandro Ibañez, Joseba Uribetxebarria, Sabin Arrieta, Egidazu eta Frantzisko Uribetxebarria.

Argazkia Asturiasko Loma Verden atera zen.



OMU mosaikoak

Zeramika-erakusketa: *Otalora 1ean*
 Biltegi berria: *Meatz-Erreka*

ARRASATE

J. M. Heriz


Konpromezurik gabeko
 aurrekontuak

Otalora Lizenziatua. Arrasate

Begi-flash




Morales agentea Miss Burduntziren dendan sartu da lagunentzako bromagai batzu erosteko asmoan...



Miss Burduntzi gaixoa! Nolako bromak atsegin dituzten konpañeroek! Zer eraman du Morales izukaitzak?

ENBIDotik hartua, ELKAR-en baimenarekin



EGVZKIGRAF


Grafikagintza. Tipografia. Offset industrialia

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

ITXURA ZAINDUZ... PARADISURA!

Itxurak, irudiak, azalak
hainbeste balio hartu duen
sozietate batetan
oso normala da, oso,
gizon-itxurazko emakumeak edo
emakume-itxurazko gizonak ikustea.
Eta itxuraren izenean,
oso normala dira trabestismo
politiko edo linguistikoa
edo beste gaineko
trabestismo moeta guziak.
Egun, oso normala da,
normalegia,
ezkertiar deiturikoak
ultraeskuindar politika burutzea
edo balio kapitalistak
ontzat ematea.
Non gaude?
Akaso manikiz beteriko
mundu batetan...?
Funtsezko balioek ez dute
ezertarako balio, diote:
"balio duena, saltzen dena da:
itxura, irudia azken finean"
Eta egun, komertzioak
balio handia du:
Saldu, saldu da egunekoa.
Zer edo nola saltzen den
ez du axola,
asuntoa saltzea da.
Azken finean:
nork ez ditu bere ideiak
bazterrera edo ukatu,
okupa dezakeen
poltrona horren ordez?
Printzipio, ideal eta kelo horiek
bazterrera egitzazu,
har ezazu itxura on bat
eta Yuppi paradisu honetan
garaile irtengo zara!
Edo: frakasatu bat izan nahi duzu?

Eneko Bergara



ASEGURU ARTEKARIA

Zure esanetara gauzkaku!

Maialako Errabala 33, Etxabea. Tfnoa: 79 69 00. Fax: 79 69 43 ARRASATE

■ **Kirolez Kirol.** Nik gogoratzen dudala, ETB 1eko aurkezlerik onenei sariak banatzen hasi zirenetik, ia beti egon da Kirolez Kirol programako bateren bat: Pedro Mari Goikoetxea, Mikel Olazabal...

Ez da, ez, kasualitatea. Horrek alde batetik saio hori asko ikusten dela adierazten du -oso urritan emango zaio horrelako saririk audientzia eskasa duen programa bateko esatariari-, eta bestetik ondo egingdako lana saritzen dela. Gure kasu honetan, biak ederki asko betetzen dira, seguruena ere Kirolak izango bait dira ETB 1ean saiorik ikusienak eta dudarik ez dago gaur egun Mikel Olazabalek, Martin Agirre, Pedro Mari Goikoetxea, Jon Elortza eta bestelakoen lankidetzaz zuzentzen duen *Kirolez Kirol* honek maila duin eta ona erdietsi duela.

Kirolaren izaera dinamikoak eta ikusgarritasunak badute zerikusirik harrera onarekin, baina baita taldeak egingdako lan serioak ere. Mikel Olazabalen aurkezteko modua ere ez da ahaztekoa. Hitz neurtuak erabiltzen ditu, ez da berotzen, eta badaki zertaz ari den.

Programa bere osoan askotan ez, baina Erreala eta Athletic-en partiduak behiniphehin gustora ikusten ditudala aitortu behar dut. Baina aipatzekotan, egin duten kareta berria ez zaidala gehiegi gustatzen. Irakurtzen bakarrik nahiko lan. Bestela ondo.

■ **Ignazio Mujika Iraola.** Idazle gazte eta bikain hau -gogoratu *Azukrea Belazeetan* liburua -aurten plazaratu zaigu irrati mundura. Euskadi Irratian hain zuzen, bi saiotan hartzen du parte: astean behin *Goizean behin* irratsaioan hiru bat minutuko kolaborazioa izan ohi du, Andoni Egañak, Andu Lertxundik eta, bezala, eta ostiral gauean *Iturri onetik* saioko tertulia literarioan esku hartzen du Lertxundi, Juaristi, Aldabaldetrek, etab.ekin batera. Idazle moduan bikaina bada -zaila ere bai, zenbaitetan- artikulugile gisa ere berdin. Irakurtzekoak izaten dira DVko Zabaliken gehienbat idazten dituenak. Irratian ere, beste horrenbeste, mikrofonoaren aurrean beste batzuk ez duten zerbait garrantzitsu duelarik: ahots ona eta beroa.

Joxe Aranzabal



— gusto baduzu —


■ **Amity Ville horror:** Ostiral gaueko, zinemaren historian hainbeste aldiz erabili izan den argumentua. Amity Ville bizileku ederra da, garai batean odolezko istorio bat izan zuena. Halere, George Lutz eta bere senideek bizileku eder horretan gelditzea erabakiko dute...Filmea Stuart Rosenberg-ek zuzendu zuen. Antzezleak, James Brolin, Margot Kidder eta Rod Steiger.

■ **UB 40 kontzertuan:** sasoi onean daude musikaren zaletuak. ETBk, talde ezberdinen emanaldiak programatu ditu igande gauearako. Horrela, oraingoan UB 40 talde britainiarraren txanda izango dugu, gaueko 11.30etan hasita. Adi, beraz, musikazaleok: bideoak prest!

■ **Goi mailakoentzat:** Asteazken gauean, 9etan, Anthony Asquithen zuzendutako filmea. Antzezleak Elizabeth Taylor, Richard Burton eta Louis Jourdan.

Behelainoaren ondorioz, Londoneko aireportutik atera behar zen hegaldi bateko bidaiariek, hotelean eman beharko dute gaua. Han, pertsonaia nahiko ezberdinak elkar-tzen dira.

bideoak



Paradisuaeren sorrera

Duela sei milioi urte t'erdia Mediterraneo desagertu egin zen; baina milioi bat urte geroago, Marokko eta Gibraltar lotzen zituen lurrezko zubia bertan behera erori zen, eta Atlantikoak zulo hori bete egin zuen. Mediterraneo birsortu zen, eta bere magalean, gure kultura eta bere aintzindariak garatu dira.

OSTADAR IRRATIA

(102 F.M)

Ostirala

3,30 eta 8,30 Errota-zahar (Ipuinak)
4 eta 8,30 Batutakin (Musika klasikoa)

Azteazkena

4 eta 8 Xiru-liru-li (Haur kantak)


Osteguna

1 eta 8 Irratia-gelan (Gelako grabaketak).



Maite Aristegi EHNE berritarren sindikatuaren abokatu bergarra izan zen Jose Mari Velez de Mendizabalek zuzentzen duen *Zenbat buru, hainbat aburu* mahainguruan jarri den lehenengo emakumea, eta Jose Marik, aurkezpenak egiteko orduan, azpimarratu zuen xehetasuna.

Ruper Ordorika ere ekarri nahi izan genuen datorren asteko *Zenbat buru, hainbat aburu* mahaingururako, baina Kubatik etorri berri oraindik, aste honetan **Bernarko** Atxagarekin batera Estatu Batuetara joan da. New Yorken eta Txikagong Bernardok hiru hitzaldi emango ditu bere azken liburuaz eta Euskal Literaturaz oro har. Gonbitea hango Unibertsitateetatik jaso dute eta hamar egunetarako izango da.



Ixabel Iturbe, urte luzeetan Santa Agedako eskolako maistra izandakoak ATBra *Erretratoa* programa egitera etorri zenean, Juan Luis Castillo Arrasate Musikaleko lehendakariarekin egin zuen tril. Hasieran ez zuen ezagutu, baina arrebaren izena aipatu orduko "ez zara Juan Luis, ba, izango?" erantzun zion. Eskola hartara Santa Ageda, Garagartza eta Uribarriko neskatilak joan ohi ziren.



asteko

PROGRAMAZIOA

Astelehenean, apirilak 30, eta asteartean, maiatzak 1, ez dugu emitituko.

2 ASTEAZKENA

- 20.00 **Berriak**, Koldo Rodriguezek aurkeztua
- 20.20 **Zenbat buru, hainbat aburu**, Jose Mari Velez de Mendizabalek zuzendua. Gaia: Euskal Musikaren bilakaera gure artean azken hogei urteetan. **Gonbidatuak:** Jose Antonio Villar, Gotzon Bikuña, Gorka Knorr eta Xementerio taldeko partaide bat.
- 21.00 **Kantu emanaldia**. Larunbatean Amaia antzokian izandako Deba Baiarako Eskola Arteko Abesbatzen III. Topaketaren laburpena. **Parte hartzaileak:** Umezaintza, S. Viator, S. Frantzisko Xabier eta Almen Ikastolak.

3. OSTEGUNA

- 12.00 **Berriak** (bezperakoa)
- 12.20 **Zenbat buru, hainbat aburu** (bezperakoa)
- 12.50 **Kantu emanaldia** (bezperakoa)

4. OSTIRALA

- 20.00 **Berriak**. Aurkezlea Koldo Rodriguez
- 20.20 **Erretratoa**. Aurkezlea J.R. Elortza. **Gonbidatua:** Fray Rufino frantziskotarra
- 20.50 **Musikantoi**. Pepe, Asier, Mikel eta Patxi egina. The Cure, Mindright Oil eta The Police-ren kontzertu baten hainbat atal, besteak beste.

5 LARUNBATA

- 12.00 **Berriak** (bezperakoa)
- 12.20 **Erretratoa** (bezperakoa)
- 12.50 **Musikantoi** (bezperakoa)



**URREZKO BITXIAK
ERLOJUTEGIA**

Erdiko Kale 23, Tfnoa: 79 20 47
ARRASATE

NAROKI

EDERRA

Iturriotz kalea 12, Tfnoa: 79 96 25



ARIES
Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Egiati, eta burugogor gainera arituko zara arazo horri zentzuzko irtenbidea bilatu nahian eta ez zara ohartuko inguruan sortuko duzun nahaste eta iskanbilaz.



LEO
Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra

Altu daukazu somenerako gaitasuna. Erabili ezazu lanerako, hurrengo batean buruhauste gutxiago izateko aprobetxatzenik izango duzu eta. Oldarkor zabilta, kirola eginez baretuko zara.



SAGITARIUS
Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Besteen arazo izpiritualeri emango diezu bazeu ere lehentasuna. Prestua izango zara aholkuak ematerakoan; begiko izango zaituzte horregatik.



TAURUS
Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Aholku onak ematen ari zatzazkiela sinistraz nahian ibiliko zara, baina zeuri komeni zaizunaren alde ari zarela ere garbi ikustaraziko diezu. Lotsa pixka bat badaukazu, diximulo pixka batekin egizu.



VIRGO
Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra

Uste baino luzeago ari zaizu egiten deseroso sentitze hori; baliteke digeriketa txarrak izatearen ondorioa izatea, jatordu arinagoak eginez, ibilalditxo batzuk egiteko aprobetxatu aise denbora.




CAPRICORN
Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra

Eskorpioentzat esandako berdina esan daiteke; gorputza osasuntsu eta burua argi bait daukazu, baina ahalmen hori ez duzu luzarorako izango.



GEMINI
Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Merkataritza edo irakaskuntzan badiharduzu, arrakastatsua izango da datorren astea, baina ez itzazu nahas emozioa eta dirua, arrakasta ongizate mailan emango bait da.



LIBRA
Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Ikerketa sakon baten beharrea daude zure finantzak. Nolabaiteko oreka lortzeko, luxua egungo beharretara eta ahalmen mugatu behar duzu.



AQUARIUS
Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Irentsita zauzkan oldarkortasuna baretu beharra duzu, zeurekoikeriaren ondorioz baino ez zaizu gertatzen eta; ahalegin zaitetz, behar adinako energi fisiko zein psikikoaren jabe bait zara.



CANCER
Ekainaren 22tik
Uztailaren 22ra

Ezin duzu alferrik galdu zure historia aberastuko duen ezer eta abentura kutsua izango duen edoertzara joko duzu. Ondo pentsatu zer egin, ondorio lariaren arriskua egon bait daiteke.



SCORPIO
Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra

Edoertzara moldatzeko gaitasuna daukazu eta honek zeurekoikeriaren ez erortzeko ahalmena emango dizu. Zure ahalegin guztiak ingurunearen onerako izango dira.



PISCIS
Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra

Behar bezalako garrantzia emaitzatu talde horri, derrigorrezkoa izango da eta. Lagun berri horrekin harremanak sendotzeak lagundu egingo dizu gainera.

Kanping eta terrazarako
beharrezko guztia preziorik onenetan

Eco Gasteiz -en

Cercas bajas 34, GASTEIZ

LILURA -k

zeure moda
diseinatu eta sortzen
laguntzen dizu

Zerkaosteta 5, behea.
Tfnoa: 79 89 72 ARRASATE

“PAL”

burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Uribarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99

KiDE

Paperdenda eta jostailudenda

Erguin 5, Tfnoa: 79 25 77 ARRASATE

**ARRASATE
PRESS**

77 05 65



GK:

GIPUZKOAKO KUTXA
CAJA DE GUIPUZCOA

CADUCA FINAL ▶

GK TXARTELA

Aldean eraman aldiro

Gipuzkoako Kutxaren GK Txartela eraman behar da aldean, eguneraturik egoteko.

Gipuzkoako Kutxaren Kutxazain Automatikoetan erabateko erosotasunez iharduteko.

Edozein dendatan aldean

eskudirurik eraman gabe ordaintzeko.

AZ Bulegoetako zerbitzuez baliatzeko.

Era automatizatuan eta ordutegi zabalagoan.

Eta diru-arazorik gabe bidaiatzeko.

GK Txartela.

Aldean eraman aldiro.


GK:

GIPUZKOAKO KUTXA
CAJA DE GUIPUZCOA



Jose Letona Plaza

Musakolako Eskola Publikoko argazkigintza taldekoek egina.



FAGOR 

iKER

**SUKALDE
LILURAGARRIAK**

ARRASATE

Bainugela-erakusketa: Zarugalde kalea 52, Tfnoa: 79 99 42
Sukalde-erakusketa: Udala Plaza z/g, Tfnoa: 79 00 43